1997rako Aurrekontuak eztabaidatu zirenean, Sozialisten Parlamentari Taldeak proposatuta, eta Nafarroako Gobernuak, "Unión del Pueblo Navarro"k eta "Partido Socialista de Navarra"k Nafarroako Foru Komunitatearen 1997rako Aurrekontuak onartzeko izenpetu hitzarmenaren ondorioz, gehikuntza onartu zen "guraso eta ikasleen elkarte eta federazioendako eta eskola kontseiluetan partehartzea sustatzeko dirulaguntza" kontusailean, 13100-9 lerroan, azkeneko kopurua 29.000.000 pezeta izan zelarik.

Gehikuntzaren helburua zen eskola komunitatean parte hartzeko organoen jarduna bultzatzea.

1997ko aurrekontuak eta horietan hartutako konpromezuak burutzeko dagoen epetik ia sei hilabete igaro dira eta, lehen aipatu aurrekontuhitzarmenaren betetzea ezagutarazteko asmoz, hauxe jakin nahi da:

– "Guraso eta ikasleen elkarte eta federazioendako eta eskola kontseiluetan partehartzea sustatzeko dirulaguntza" izeneko 13100-9 aurrekontu-lerroaren burutze-egoera. Zehatz bitez hurrengoak: hasierako aurrekontua, aurrekontu bateratua, baimendua, erabilia eta gauzatua, galdera honen erantzunaren egunetik ahalik eta hurbilen.

– Ari garen kontusailaren kontura egin diren ekintzen zehaztapena, eta baita aipatu kontusaila guztiz burutzeko aurreikusi direnak ere.

Iruñean, 1997ko ekainaren 10a

Foru Parlamentaria: Carlos Cristobal García

---

## "Irakaskuntzari buruzko azterlanak" izeneko 12491-6 aurrekontu-lerroaren burutze-egoerari buruzko galdera

*CARLOS CRISTOBAL GARCIA FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko ekainaren 16an egindako bilkuran, Carlos Cristóbal García Foru Parlamentari jaunak "Irakaskuntzari buruzko azterlanak" izeneko 12491-6 aurrekontu-lerroaren burutze-egoerari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko ekainaren 17a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**GALDERAREN EDUKIA**

Carlos Cristobalek, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduak xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

1997rako Aurrekontuak eztabaidatu zirenean, Sozialisten Parlamentari Taldeak proposatuta, eta Nafarroako Gobernuak, "Unión del Pueblo Navarro"k eta "Partido Socialista de Navarra"k Nafarroako Foru Komunitatearen 1997rako Aurrekontuak onartzeko izenpetu hitzarmenaren ondorioz, gehikuntza onartu zen "irakaskuntzari buruzko azterlanak" kontusailean, 12491-6 lerroan, azkeneko kopurua 1.000.000 pezeta izan zelarik.

Gehikuntzaren helburua zen ikasturte honetan egiteko den irakaskuntzari buruzko azterlan beharrezkoari kanpoko laguntza emateko dirua izatea.

1997ko aurrekontuak eta horietan hartutako konpromezuak burutzeko dagoen epetik ia sei hilabete igaro dira eta, lehen aipatu aurrekontuhitzarmenaren betetzea ezagutarazteko asmoz, hauxe jakin nahi da:

– "Irakaskuntzari buruzko azterlanak" izeneko 12491-6 aurrekontu-lerroaren burutze-egoera. Zehatz bitez hurrengoak: hasierako aurrekontua, aurrekontu bateratua, baimendua, erabilia eta gauzatua, galdera honen erantzunaren egunetik ahalik eta hurbilen.

– Ari garen kontusailaren kontura egin diren ekintzen zehaztapena, eta baita aipatu kontusaila guztiz burutzeko aurreikusi direnak ere.

Iruñean, 1997ko ekainaren 10a

Foru Parlamentaria: Carlos Cristobal García

---

## "Haur hezkuntzako lehen zikloa ezartzea" izeneko 13131-9 aurrekontu-lerroaren burutze-egoerari buruzko galdera

*CARLOS CRISTOBAL GARCIA FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko ekainaren 16an egindako bilkuran, Carlos Cristóbal García Foru Parlamentari jaunak "Haur hezkuntzako lehen zikloa ezartzea" izeneko 13131-9 aurrekontu-lerroaren burutze-egoerari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko ekainaren 17a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**GALDERAREN EDUKIA**

Carlos Cristobalek, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduak xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

1997rako Aurrekontuak eztabaidatu zirenean, Sozialisten Parlamentari Taldeak proposatuta, eta Nafarroako Gobernuak, "Unión del Pueblo Navarro"k eta "Partido Socialista de Navarra"k Nafarroako Foru Komunitatearen 1997rako Aurrekon-

tuak onartzeko izenpetu hitzarmenaren ondorioz, gehikuntza onartu zen “haur hezkuntzako lehen zikloa ezartzea” kontusailean, 13131-9 lerroan, azkeneko kopurua 1.000.000 pezeta izan zelarik.

Gehikuntzaren helburua zen haur hezkuntzako lehen zikloa ezartzeko plangintzari ekitea.

1997ko aurrekontuak eta horietan hartutako konpromezuak burutzeko dagoen epetik ia sei hilabete igaro dira eta, lehen aipatu aurrekontu-hitzarmenaren betetzea ezagutarazteko asmoz, hauxe jakin nahi da:

– “Haur hezkuntzako lehen zikloa” ezartzea izeneko 13131-9 aurrekontu-lerroaren burutze-egoera. Zehatz bitez hurrengoak: hasierako aurrekontua, aurrekontu bateratua, baimendua, erabilia eta gauzatua, galdera honen erantzunaren egunetik ahalik eta hurbilen.

– Ari garen kontusailaren kontura egin diren ekintzen zehaztapena, eta baita aipatu kontusaila guztiz burutzeko aurreikusi direnak ere.

Iruñean, 1997ko ekainaren 10a

Foru Parlamentaria: Carlos Cristobal García

---

## “Helduentzako hezkuntza” izeneko 13171-8 aurrekontu-lerroaren burutze-egoerari buruzko galdera

*CARLOS CRISTOBAL GARCIA FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko ekainaren 16an egindako bilkuran, Carlos Cristóbal García Foru Parlamentari jaunak “Helduentzako hezkuntza” izeneko 13171-8 aurrekontu-lerroaren burutze-egoerari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko ekainaren 17a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

### GALDERAREN EDUKIA

Carlos Cristobalek, “Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduak xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

1997rako Aurrekontuak eztabaidatu zirenean, Sozialisten Parlamentari Taldeak proposatuta, eta Nafarroako Gobernuak, “Unión del Pueblo Navarro”k eta “Partido Socialista de Navarra”k Nafarroako Foru Komunitatearen 1997rako Aurrekontuak onartzeko izenpetu hitzarmenaren ondorioz, gehikuntza onartu zen “helduentzako hezkuntza” kontusailean, 13171-8 lerroan, azkeneko kopurua 25.000.000 pezeta izan zelarik.

Gehikuntzaren helburua zen programa honentzako baliabideak gehitzea, Eskola Graduatu titulua gainditzen ari den unean.

1997ko aurrekontuak eta horietan hartutako konpromezuak burutzeko dagoen epetik ia sei hilabete igaro dira eta, lehen aipatu aurrekontu-hitzarmenaren betetzea ezagutarazteko asmoz, hauxe jakin nahi da:

– “Helduentzako hezkuntza” izeneko 13171-8 aurrekontu-lerroaren burutze-egoera. Zehatz bitez hurrengoak: hasierako aurrekontua, aurrekontu bateratua, baimendua, erabilia eta gauzatua, galdera honen erantzunaren egunetik ahalik eta hurbilen.

– Ari garen kontusailaren kontura egin diren ekintzen zehaztapena, eta baita aipatu kontusaila guztiz burutzeko aurreikusi direnak ere.

Iruñean, 1997ko ekainaren 10a

Foru Parlamentaria: Carlos Cristobal García

---

# "Nafarroako Unibertsitate Publikoarendako kapital transferentziak" izeneko 13620-5 aurrekontu-lerroaren burutze-egoerari buruzko galdera

*CARLOS CRISTOBAL GARCIA FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko ekainaren 16an egindako bilkuran, Carlos Cristóbal García Foru Parlamentari jaunak "Nafarroako Unibertsitate Publikoarendako kapital transferentziak" izeneko 13620-5 aurrekontu-lerroaren burutze-egoerari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko ekainaren 17a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**GALDERAREN EDUKIA**

Carlos Cristobalek, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduak xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

1997rako Aurrekontuak eztabaidatu zirenean, Sozialisten Parlamentari Taldeak proposatuta, eta Nafarroako Gobernuak, "Unión del Pueblo Navarro"k eta "Partido Socialista de Navarra"k Nafarroako Foru Komunitatearen 1997rako Aurrekontuak onartzeko izenpetu hitzarmenaren ondorioz, gehikuntza onartu zen "Nafarroako Unibertsitate Publikoarendako kapital transferentziak" kontusailean, 13620-5 lerroan, azkeneko kopurua 624.000.000 pezeta izan zelarik.

Gehikuntzaren helburua zen NUPendako baliabideak gehitzea.

1997ko aurrekontuak eta horietan hartutako konpromezuak burutzeko dagoen epetik ia sei hilabete igaro dira eta, lehen aipatu aurrekontu-hitzarmenaren betetzea ezagutarazteko asmoz, hauxe jakin nahi da:

– "Nafarroako Unibertsitate Publikoarendako kapital transferentziak" izeneko 13620-5 aurrekontu-lerroaren burutze-egoera. Zehatz bitez hurrengoak: hasierako aurrekontua, aurrekontu bateratua, baimendua, erabilia eta gauzatua, galdera honen erantzunaren egunetik ahalik eta hurbilen.

– Ari garen kontusailaren kontura egin diren ekintzen zehaztapena, eta baita aipatu kontusaila guztiz burutzeko aurreikusi direnak ere.

Iruñean, 1997ko ekainaren 10a

Foru Parlamentaria: Carlos Cristobal García

---

# "Nafarroako Unibertsitate Publikoa eraikitzea" izeneko 94005-5 aurrekontu-lerroaren burutze-egoerari buruzko galdera

*CARLOS CRISTOBAL GARCIA FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko ekainaren 16an egindako bilkuran, Carlos Cristóbal García Foru Parlamentari jaunak "Nafarroako Unibertsitate Publikoa eraikitzea" izeneko 94005-5 aurrekontu-lerroaren burutze-egoerari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko ekainaren 17a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**GALDERAREN EDUKIA**

Carlos Cristobalek, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduak xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

1997rako Aurrekontuak eztabaidatu zirenean, Sozialisten Parlamentari Taldeak proposatuta, eta Nafarroako Gobernuak, "Unión del Pueblo Navarro"k eta "Partido Socialista de Navarra"k Nafarroako Foru Komunitatearen 1997rako Aurrekon-

tuak onartzeko izenpetu hitzarmenaren ondorioz, gehikuntza onartu zen “Nafarroako Unibertsitate Publikoa eraikitzea” kontusailean, 94005-5 lerroan, azkeneko kopurua 475.000.000 pezeta izan zelarik.

Gehikuntzaren helburua zen NUPeko obrak bukatzeko baliabideak gehitzea.

1997ko aurrekontuak eta horietan hartutako konpromezuak burutzeko dagoen epetik ia sei hilabete igaro dira eta, lehen aipatu aurrekontu-hitzarmenaren betetzea ezagutarazteko asmoz, hauxe jakin nahi da:

– “Nafarroako Unibertsitate Publikoa eraikitzea” izeneko 94005-5 aurrekontu-lerroaren burutze-egoera. Zehatz bitez hurrengoak: hasierako aurrekontua, aurrekontu bateratua, baimendua, erabilia eta gauzatua, galdera honen erantzunaren egunetik ahalik eta hurbilen.

– Ari garen kontusailaren kontura egin diren ekintzen zehaztapena, eta baita aipatu kontusaila guztiz burutzeko aurreikusi direnak ere.

Iruñean, 1997ko ekainaren 10a

Foru Parlamentaria: Carlos Cristobal García

## “Nafarroako Unibertsitate Publikoarendako dirulaguntza” izeneko 13530-6 aurrekontu-lerroaren burutze-egoerari buruzko galdera

*CARLOS CRISTOBAL GARCIA FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko ekainaren 16an egindako bilkuran, Carlos Cristóbal García Foru Parlamentari jaunak “Nafarroako Unibertsitate Publikoarendako dirulaguntza” izeneko 13530-6 aurrekontu-lerroaren burutze-egoerari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko ekainaren 17a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**GALDERAREN EDUKIA**

Carlos Cristobalek, “Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduak xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

1997rako Aurrekontuak eztabaidatu zirenean, Sozialisten Parlamentari Taldeak proposatuta, eta Nafarroako Gobernuak, “Unión del Pueblo Navarro”k eta “Partido Socialista de Navarra”k Nafarroako Foru Komunitatearen 1997rako Aurrekontuak onartzeko izenpetu hitzarmenaren ondorioz, gehikuntza onartu zen “Nafarroako Unibertsitate Publikoarendako dirulaguntza” kontusailean, 13530-6 lerroan, azkeneko kopurua 3.896.074.000 pezeta izan zelarik.

Gehikuntzaren helburua zen baliabideak NUPen beharrizanei egokitzea, erakunde horri ematen diogun zalantzarik gabeko laguntzaren baitan.

1997ko aurrekontuak eta horietan hartutako konpromezuak burutzeko dagoen epetik ia sei hilabete igaro dira eta, lehen aipatu aurrekontu-hitzarmenaren betetzea ezagutarazteko asmoz, hauxe jakin nahi da:

– “Nafarroako Unibertsitate Publikoarendako dirulaguntza” izeneko 13530-6 aurrekontu-lerroaren burutze-egoera. Zehatz bitez hurrengoak: hasierako aurrekontua, aurrekontu bateratua, baimendua, erabilia eta gauzatua, galdera honen erantzunaren egunetik ahalik eta hurbilen.

– Ari garen kontusailaren kontura egin diren ekintzen zehaztapena, eta baita aipatu kontusaila guztiz burutzeko aurreikusi direnak ere.

Iruñean, 1997ko ekainaren 10a

Foru Parlamentaria: Carlos Cristobal García

## “Barañaingo auditorioarentzako dirulaguntza” izeneko 13971-9 aurrekontu-lerroaren burutze-egoerari buruzko galdera

*CARLOS CRISTOBAL GARCIA FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko ekainaren 16an egindako bilkuran, Carlos Cristóbal García Foru Parlamentari jaunak “Barañaingo auditorioarentzako dirulaguntza” izeneko 13971-9 aurrekontu-lerroaren burutze-egoerari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko ekainaren 17a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**GALDERAREN EDUKIA**

Carlos Cristobalek, “Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduak xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

1997rako Aurrekontuak eztabaidatu zirenean, Sozialisten Parlamentari Taldeak proposatuta, eta Nafarroako Gobernuak, “Unión del Pueblo Navarro”k eta “Partido Socialista de Navarra”k Nafarroako Foru Komunitatearen 1997rako Aurrekontuak onartzeko izenpetu hitzarmenaren ondorioz, gehikuntza onartu zen “Barañaingo auditorioarentzako dirulaguntza” kontusailean, 13971-9 lerroan, azkeneko kopurua 15.000.000 pezeta izan zelarik.

Gehikuntzaren helburua zen aipatu musika-azpiegitura aprobetxatzeko irtenbidea ahalbidetzea.

1997ko aurrekontuak eta horietan hartutako konpromezuak burutzeko dagoen epetik ia sei hilabete igaro dira eta, lehen aipatu aurrekontu-hitzarmenaren betetzea ezagutarazteko asmoz, hauxe jakin nahi da:

– “Barañaingo auditorioarentzako dirulaguntza” izeneko 13971-9 aurrekontu-lerroaren burutze-egoera. Zehatz bitez hurrengoak: hasierako aurrekontua, aurrekontu bateratua, baimendua, erabilia eta gauzatua, galdera honen erantzunaren egunetik ahalik eta hurbilen.

– Ari garen kontusailaren kontura egin diren ekintzen zehaztapena, eta baita aipatu kontusaila guztiz burutzeko aurreikusi direnak ere.

Iruñean, 1997ko ekainaren 10a

Foru Parlamentaria: Carlos Cristobal García

---

## “Santa Cecilia kontzertu-sozietatearekiko hitzarmena” izeneko 14110-1 aurrekontu-lerroaren burutze-egoerari buruzko galdera

*CARLOS CRISTOBAL GARCIA FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko ekainaren 16an egindako bilkuran, Carlos Cristóbal García Foru Parlamentari jaunak “Santa Cecilia kontzertu-sozietatearekiko hitzarmena” izeneko 14110-1 aurrekontu-lerroaren burutze-egoerari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko ekainaren 17a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**GALDERAREN EDUKIA**

Carlos Cristobalek, “Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduak xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

1997rako Aurrekontuak eztabaidatu zirenean, Sozialisten Parlamentari Taldeak proposatuta, eta Nafarroako Gobernuak, “Unión del Pueblo Navarro”k eta “Partido Socialista de Navarra”k Nafarroako Foru Komunitatearen 1997rako Aurrekontuak onartzeko izenpetu hitzarmenaren ondorioz,

gehikuntza onartu zen “Santa Cecilia kontzertu-sozietatearekiko hitzarmena” kontusailean, 14110-1 lerroan, azkeneko kopurua 145.000.000 pezeta izan zelarik.

Gehikuntzaren helburua zen Pablo Sarasate orkestraren jarduera eta kontzertu-sozietatea fundazio bihurtzea ahalbidetzea.

1997ko aurrekontuak eta horietan hartutako konpromezuak burutzeko dagoen epetik ia sei hilabete igaro dira eta, lehen aipatu aurrekontu-hitzarmenaren betetzea ezagutarazteko asmoz, hauxe jakin nahi da:

– “Santa Cecilia kontzertu-sozietatearekiko hitzarmena” izeneko 14110-1 aurrekontu-lerroaren burutze-egoera. Zehatz bitez hurrengoak: hasierako aurrekontua, aurrekontu bateratua, baimendua, erabilia eta gauzatua, galdera honen erantzunaren egunetik ahalik eta hurbilen.

– Ari garen kontusailaren kontura egin diren ekintzen zehaztapena, eta baita aipatu kontusaila guztiz burutzeko aurreikusi direnak ere.

Iruñean, 1997ko ekainaren 10a

Foru Parlamentaria: Carlos Cristobal García

---

## “Kulturetxeak eta bestelako udal-kulturguneak eraiki eta ekipatzea” izeneko 90057-6 aurrekontu-lerroaren burutze-egoerari buruzko galdera

*CARLOS CRISTOBAL GARCIA FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko ekainaren 16an egindako bilkuran, Carlos Cristóbal García Foru Parlamentari jaunak “Kulturetxeak eta bestelako udal-kulturguneak eraiki eta ekipatzea” izeneko 90057-6 aurrekontu-lerroaren burutze-egoerari buruz egindako galderaren bideratzea onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko ekainaren 17a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

### GALDERAREN EDUKIA

Carlos Cristobalek, “Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduak xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

1997rako Aurrekontuak eztabaidatu zirenean, Sozialisten Parlamentari Taldeak proposatuta, eta Nafarroako Gobernuak, “Unión del Pueblo Navarro”k eta “Partido Socialista de Navarra”k Nafarroako Foru Komunitatearen 1997rako Aurrekontuak onartzeko izenpetu hitzarmenaren ondorioz, gehikuntza onartu zen “kulturetxeak eta bestelako udal-kulturguneak” eraiki eta ekipatzea kontusailean, 90057-6 lerroan, azkeneko kopurua 208.200.000 pezeta izan zelarik.

Gehikuntzaren helburua zen kultura azpiegiturak gehitzea Nafarroako herrietan.

1997ko aurrekontuak eta horietan hartutako konpromezuak burutzeko dagoen epetik ia sei hilabete igaro dira eta, lehen aipatu aurrekontu-hitzarmenaren betetzea ezagutarazteko asmoz, hauxe jakin nahi da:

– “Kulturetxeak eta bestelako udal-kulturguneak eraiki eta ekipatzea” izeneko 90057-6 aurrekontu-lerroaren burutze-egoera. Zehatz bitez hurrengoak: hasierako aurrekontua, aurrekontu bateratua, baimendua, erabilia eta gauzatua, galdera honen erantzunaren egunetik ahalik eta hurbilen.

– Ari garen kontusailaren kontura egin diren ekintzen zehaztapena, eta baita aipatu kontusaila guztiz burutzeko aurreikusi direnak ere.

Iruñean, 1997ko ekainaren 10a

Foru Parlamentaria: Carlos Cristobal García

---

# "Udal eraikinetako liburutegiendako laguntzak" izeneko 14300-7 aurrekontu-lerroaren burutze-egoerari buruzko galdera

*CARLOS CRISTOBAL GARCIA FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko ekainaren 16an egindako bilkuran, Carlos Cristóbal García Foru Parlamentari jaunak "Udal eraikinetako liburutegiendako laguntzak" izeneko 14300-7 aurrekontu-lerroaren burutze-egoerari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko ekainaren 17a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**GALDERAREN EDUKIA**

Carlos Cristobalek, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduak xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

1997rako Aurrekontuak eztabaidatu zirenean, Sozialisten Parlamentari Taldeak proposatuta, eta Nafarroako Gobernuak, "Unión del Pueblo Navarro"k eta "Partido Socialista de Navarra"k Nafarroako Foru Komunitatearen 1997rako Aurrekontuak onartzeko izenpetu hitzarmenaren ondorioz, gehikuntza onartu zen "udal eraikinetako liburutegiendako laguntzak" kontusailean, 14300-7 lerroan, azkeneko kopurua 55.000.000 pezeta izan zelarik.

Gehikuntzaren helburua zen Nafarroako herrietako liburutegiendako dotazioak gehitzea.

1997ko aurrekontuak eta horietan hartutako konpromezuak burutzeko dagoen epetik ia sei hilabete igaro dira eta, lehen aipatu aurrekontu-hitzarmenaren betetzea ezagutarazteko asmoz, hauxe jakin nahi da:

– "Udal eraikinetako liburutegiendako laguntzak" izeneko 14300-7 aurrekontu-lerroaren burutze-egoera. Zehatz bitez hurrengoak: hasierako aurrekontua, aurrekontu bateratua, baimendua, erabilia eta gauzatua, galdera honen erantzunaren egunetik ahalik eta hurbilen.

– Ari garen kontusailaren kontura egin diren ekintzen zehaztapena, eta baita aipatu kontusaila guztiz burutzeko aurreikusi direnak ere.

Iruñean, 1997ko ekainaren 10a

Foru Parlamentaria: Carlos Cristobal García

---

# "Eraikin historikoak bereoneratu eta babestea" izeneko 90065-7 aurrekontu-lerroaren burutze-egoerari buruzko galdera

*CARLOS CRISTOBAL GARCIA FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko ekainaren 16an egindako bilkuran, Carlos Cristóbal García Foru Parlamentari jaunak "Eraikin historikoak bereoneratu eta babestea" izeneko 90065-7 aurrekontu-lerroaren burutze-egoerari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko ekainaren 17a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**GALDERAREN EDUKIA**

Carlos Cristobalek, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduak xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

1997rako Aurrekontuak eztabaidatu zirenean, Sozialisten Parlamentari Taldeak proposatuta, eta Nafarroako Gobernuak, "Unión del Pueblo Navarro"k eta "Partido Socialista de Navarra"k Nafarroako Foru Komunitatearen 1997rako Aurrekontuak onartzeko izenpetu hitzarmenaren ondorioz, gehi-

kuntza onartu zen “eraikin historikoak bereoneratu eta babestea” kontusailean, 90065-7 lerroan, azkeneko kopurua 323.000.000 pezeta izan zelarik.

Gehikuntzaren helburua zen kontusail horretan diru gehiago izatea, jarduketa gehiago burutu ahal izateko, Marcillako Gazteluan, konparazione, Batzordean aipatu baitzen.

1997ko aurrekontuak eta horietan hartutako konpromezuak burutzeko dagoen epetik ia sei hilabete igaro dira eta, lehen aipatu aurrekontu-hitzarmenaren betetzea ezagutarazteko asmoz, hauxe jakin nahi da:

– “Eraikin historikoak bereoneratu eta babestea” izeneko 90065-7 aurrekontu-lerroaren burutze-egoera. Zehatz bitez hurrengoak: hasierako aurrekontua, aurrekontu bateratua, baimendua, erabilia eta gauzatua, galdera honen erantzunaren egunetik ahalik eta hurbilen.

– Ari garen kontusailaren kontura egin diren ekintzen zehaztapena, eta baita aipatu kontusaila guztiz burutzeko aurreikusi direnak ere.

Iruñean, 1997ko ekainaren 10a

Foru Parlamentaria: Carlos Cristobal García

---

# Iruñea-Munich hegaldien emaitza ekonomikoei buruzko galdera

*FERMIN CIAURRIZ GOMEZ FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko ekainaren 16an egindako bilkuran, Fermín Ciáurriz Gómez Foru Parlamentari jaunak Iruñea-Munich hegaldien emaitza ekonomikoei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko ekainaren 17a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**GALDERAREN EDUKIA**

Fermín Ciáurriz Gómez Eusko Alkartasuna-Askotariko Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduak xedatutakoaren babesean, idatzizko erantzuna eskatuz, honako galdera hau egiten du:

Aurtengo urtarrilaren erdialdean, “Líneas Aéreas de Navarra (LAN)” enpresak, Foru Gobernuaren laguntzaz, Municheko hegaldiak jarri zituen martxan. Gobernuak adierazi zuen orduan honetarako ezarririko dirulaguntzak koiunturalak zirela eta hiru hilabeteko epean egoera ebaluatuko zela.

Aurrekoa ikusirik, honako galdera hauek erantzutea nahi da:

a) Iruñea-Munich hegaldiei buruz Gobernuak egiten duen balorazioa.

b) Hartutako konpromezuen arabera Foru Administrazioak ordaindutakoa.

c) Municherako hegaldiak erabili dituzten bidaiarien kopurua, eta, Leipzigeko Azoka zela-eta, zenbat plaza bete dituzten Foru Administrazioak, organismo autonomoek eta enpresa publikoek.

d) Hegaldi hauek direla-eta, Administrazioak hasieran jarritako eta agindutako epea bukatu ondoren, Nafarroako Gobernuak LANekin dituen konpromezu ekonomikoak.

Iruñean, 1997ko ekainaren 9an.

Foru Parlamentaria: Fermín Ciáurriz Gómez.

---

## 1997-1998 ikasturterako plazarik gabe geratu den ikasleak direla eta hartu behar diren neurriei buruzko galdera

*Mª ISABEL ARBONIES BERMEJO FORU PARLAMENTARI ANDREAK AURKEZTUA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko ekainaren 16an egindako bilkuran, Mª Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andreak 1997-1998 ikasturterako plazarki gabe geratu den ikasleak direla eta hartu behar diren neurriei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko ekainaren 17a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**GALDERAREN EDUKIA**

Mª Isabel Arboniés Bermejo “Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra” Parlamentari Taldeari atxikiriko Hezkuntza bozeramaleak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduak xedatutakoaren babesean, idatzizko erantzuna eskatuz honako galdera hau egiten du:

Antsoaingo Ikastetxe Publikoan Lehen Hezkuntzako D Ereduko lehenengo mailan, 29 eskakizun dituena, plaza aski ez zutenez inguruko lau ikasle beste zentro batera bidali dituzte.

Gertatu da hauetatik hiruk badituztela anai-arreba gazteagoak Antsoaingo zentroan matrikulaturik. Familiek beren seme-alabek zentro horretan elkarrekin jarraitzea nahi dute, hau baita inguruz eta aukeraz dagokiena.

Etxebizitza bloke berrien eraikuntzarekin handituz joanen den populazioaren hazkundea ikusirik, inguru honetan oraingo eta etorkizuneko eskolaratze beharrei aurre egiteko Hezkuntza Departamentuak zer aurreikuspen duen jakin nahi da.

Galdera:

97/98 ikasturterako plazarik gabe gelditu diren ikasleak direla-eta, zer neurri hartuko ditu Hezkuntza Departamentuak?

Ikasle hauek hartu ahal izateko, D ereduko Lehen Hezkuntzako lehenengo maila bikoiztuko al da?

Antsoaingo populazioaren hazkundea dela-eta, hurrengo ikasturteetarako zenbat eskola plaza gehitzea aurreikusten du Hezkuntza Departamentuak?

Iruñean, 1997ko ekainaren 10ean.

Foru Parlamentaria: Mª Isabel Arboniés Bermejo

---

## Helduak euskalduntzeko dirulaguntza-modulua gehitzeari buruzko galdera

*Mª ISABEL ARBONIES BERMEJO FORU PARLAMENTARI ANDREAK AURKEZTUA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko ekainaren 16an egindako bilkuran, Mª Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andreak helduak euskalduntzeko dirulaguntza-modulua gehitzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko ekainaren 17a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**GALDERAREN EDUKIA**

Isabel Arboniés Bermejo “Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra” Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du idatzizko erantzuna eskatuz:

Aurtengo martxoaren 20an, Hezkuntza Departamentuak, Foru Parlamentari honek gau-eskolek helduen euskalduntzerako jasotzen dituzten dirulaguntza moduluaren izozketari buruz egindako

galderari erantzunez, 1997ko aurrekontuetako kopuruak %22,58 gehitu direla adierazi zuen.

Maiatzaren 29an Hezkuntza Batzordearekin izandako lan-bileran IKA eta AEK taldeek, helduen euskalduntze politikaren planifikazioaz aritzeko lan-talde bat eratu beharra berriro azaltzeaz gain, ikasleko eta orduko dirulaguntza moduloa igotzearen alde lan egiteko eskatu zieten Parlamentari Taldeei.

1997ko aurrekontuetan %22,58ko igoera izanda, Hezkuntza Departamentuak ba al du asmorik dirulaguntza modulua portzentaia berean igotzeko?

Zein da Nafarroako Gobernuak egun euskalduntzeko ikasleko eta orduko duen dirulaguntza moduluaren balio orokorra?

Herri-ekimenez sortutako gau-eskoletako ikasle/orduko kostua ebaluatu al da?

Iruñean, 1997ko ekainaren 10ean.

Foru Parlamentaria: Mª Isabel Arboniés Bermejo

---

# Haur Hezkuntzaren bigarren zikloko lehen, bigarren eta hirugarren kurtsoetan diruzlagundu diren unitateei buruzko galdera

*CARLOS CRISTOBAL GARCIA FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko ekainaren 16an egindako bilkuran, Carlos Cristóbal García Foru Parlamentari jaunak Haur Hezkuntzaren bigarren zikloko lehen, bigarren eta hirugarren kurtsoetan diruzlagundu diren unitateei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko ekainaren 17a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**GALDERAREN EDUKIA**

Carlos Cristobalek, “Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduak xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Apirilaren 3ko 130/1996 Foru Aginduak diruzlagundutako haur hezkuntzako ikasgelako ikasle kopurua arautu du bukatu berri den 1996/1997 ikasturterako. Haren 3.1. atalak dioenaren arabera, ikasgela bakoitzeko gehienez 25 ikasle izatea dugu dirulaguntza emateko irizpidea.

Foru Aginduak hauxe ere badio: “1995/96 ikasturtean, lehenbiziko eta bigarren ikasmailetan hogeita bortz baino ikasle gehiagoko unitateak izan dituzten Haur Hezkuntzaren bigarren zikloko zentroetan, bigarren edo hirugarren ikasmailetan, hurrenez hurren, <u>behin-behinekotasunez</u> (azpimarra nirea da) unitate bakoitzeko hogeita bortz ikasleko muga hori gainditu ahalko dute.”

Artikuluak, gainerakoan, haur hezkuntzako ikasgelako 25 ikasleko muga ez gainditzeko neurriak xedatu ditu, Nafarroako hezkuntza-sistemaren barne orekarako gakotzat jotzen delako diruzlagundutako haur hekuntzako ikasle-kopuruari buruzko arauak zorrotz kontrolatzea, geroago sistema osora hedatu ahal izateko.

Hirugarren atal honetako azken lerroaldeak hauxe dio: “Plangintza eta Inbertsio Zerbitzuak kopia bana igorriko die Zerbitzuak Ikuskatzeko eta Ikuskapen Teknikorako Zerbitzuari” (alegia, 25 ikasle baino gehiagoko ikasgelak zuritzeko dokumentazioaren kopia), “3.1. idazati honetan xedatutakoa <u>betetzen den beha dezaten</u> (azpimarra nirea da)”.

Harrigarria bada ere, apirilaren 11ko 115/1997 Foru Aginduak, gai bera datorren ikasturterako, 1997/1998rako, alegia, arautzen duenak, berriro ere eman dio bide 25 ikasleko muga salbuesteari haur hezkuntzaren bigarren zikloko zentroetan, bigarren edo hirugarren ikasmailetako ikasgeletan. 1996/1997 ikasturtea arautzen zuen Foru Agindua betez gero, ordea, inolaz ere ez litzateke izan behar 25 ikasletik goitiko ikasgelarik haur hezkuntzako lehen eta bigarren mailan.

Hori horrela, Nafarroako hezkuntza-sistemaren kontrol eta orekarako giltzarri den arazo honen aurrean Talde Sozialistaren jarrera finkatu ahal izateko, Nafarroako Gobernuak hurrengo galderei erantzuna ematea nahi da:

1.- Ikasgelako ikasle kopurua 1995/1996 ikasturtearen bukaeran, haur hezkuntzako bigarren zikloko lehen, bigarren eta hirugarren kurtsoetan diruz lagundu diren unitateetan.

2.- Ikasgelako ikasle kopurua 1996/1997 ikasturtearen bukaeran, haur hezkuntzako bigarren zikloko lehen, bigarren eta hirugarren kurtsoetan diruz lagundu diren unitateetan.

3.- Foru Agindua betetzen ez duen ikaslekopurua duten ikasgelarik izatekotan, Ikuskaritza Zerbitzuak hartu dituen neurriak Foru Agindua betetzen dela begiratzeko.

4.- Diruz lagundutako ikasgelako 25 ikasleko muga 1998/1999 ikasturtetik aitzina ez gainditzeko aipatu Foru Aginduko 3.1. idazatian ageri diren gainerako arauen betetze maila.

5.- 115/1997 Foru Aginduak aipatu lerroaldea errepikatzea akatstzat jo daiteke? 130/1996 Foru Aginduak zioena bete gabe geratu da?

6.- Bete ez bada, Ikuskaritzaren oniritziarekin gertatu al da? Zer neurri hartu du Gobernuak aipatu ez betetzearen arduradunen aurka?

Iruñean, 1997ko ekainaren 12a

Foru Parlamentaria: Carlos Cristobal García

---

## Ospitale publikoen geletako telebista eta telefonoak jarri eta ustiatzeari buruzko galdera

*ION IÑAKI ERRO ARMENDARIZ FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko ekainaren 16an egindako bilkuran, ion Iñaki Erro Armendariz Foru Parlamentari jaunak Ospitale publikoen geletako telebista eta telefonoak jarri eta ustiatzeari buruz egindako galderaren bidera-pena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko ekainaren 17a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**GALDERAREN EDUKIA**

Ion Iñaki Erro Armendáriz “Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra” Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du:

Nafarroako Gobernuak Bideko Ama Bbirjina eta Nafarroako Ospitaleetako gaisoen geletako telefonoak eta telebistak jartzeko eta ustiatzeko zerbitzuaren esleipena egin du berriki.

Lehiaketa publikoaren bidez egindako esleipen honen urteko amortizazio-zenbatekoa 12.024.925 pezeta da, eta honen arabera 100 pezetarengatik telebista 75 minutuz ikus daiteke eta telefono pausoaren kostua ofiziala gehi %25 da.

Honengatik jakin nahi da:

1. Zein izan da orain arte Nafarroako ospitale publiko bakoitzeko gaisoen geletako telebista eta telefonoak jartzeko eta ustiatzeko sistema?

2. Lehiaketa publiko berri hau dela-eta, zer zerbitzu berri emanen dira?

3. Zer arrazoik bultzatu dute Nafarroako Gobernua lehiaketa publikoa egitera zerbitzu hauek enpresa pribatu batekin egindako hitzarmenaren bidez, Osasun publikoko erabiltzaileenzat telefono pausoen %25eko gainkostua eta telebista 75 minutuz ikusteagatik 100 pezetako kostua dakartzala jakinik?

4. Zergatik baztertu du Nafarroako Gobernuak Bideko Ama Birjina eta Nafarroako Ospitaleetako gaisoen geletako telebistak eta telefonoak jartzeko eta ustiatzeko zerbitzuaren instalakuntza eta ustiapena Foru Administrazioak berak edo enpresa publiko baten bidez egitea, ospitaleetako erabiltzaileentzat dezente aurreztea izango litzatekeena?

5. Bideko Ama Birjina Ospitaleko eta Nafarroako Ospitaleko gaisoen geletako telebisten eta telefonoen instalakuntza eta ustiapen zerbitzuaren esleipenaren espediente administratiboaren edukia.

Iruñean, 1997ko ekainaren 12an.

Foru Parlamentaria: Ion Iñaki Erro Armendáriz.

# Mendillorriko I. faseko botika III. fasera lekualdatzeari buruzko galdera

*ION IÑAKI ERRO ARMENDARIZ FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko ekainaren 16an egindako bilkuran, Ion Iñaki Erro Armendariz Foru Parlamentari jaunak Mendillorriko I. faseko botika III. fasera lekualdatzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko ekainaren 17a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**GALDERAREN EDUKIA**

Ion Iñaki Erro Armendáriz “Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra” Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du:

1996ko maiatzaren 13ko Nafarroako Aldizkari Ofizialak Mendillorriko I. Faseko botikaren lekualdatzea III. Fasera 1996ko maiatzaren 20an egingo zela argitaratzen zuen ofizialki publikoki jakinarazteko, zehaztasun gehiagorik eman gabe.

Honen ondoren, argitaratze ofizial honen babesean Mendillorriko I. Fasean botika zerbitzua berriz irekitzeko aurkeztutako eskakizunen aurrean, Osasun Departamentuak baimena ordu jakin batean aurkeztu zen eskakizunari eman zion, III. Faseko botika zabaldu eta berehala aurkeztutakoa zela argudiatuz.

Honengatik jakin nahi da:

1. Zer lortu nahi zuen Nafarroako Gobernuak Mendillorriko I. Faseko botika lekualdatzeko data ofizialki argitaratuz?

2. Zein da legez ezarritako irizpidea eta Foru Administrazioak jarraitzen duena Foru Komunitatean botikak irekitzeko baimena emateko, 2.000 biztanletik gora dituzten tokietako eskakizunak bereziki aipatuz?

3.- Azken 3 urteetan Foru Administrazioak ebatzi dituen edo ebatzi gabe dauden Nafarroako botiken irekitze, ixte edo lekualdatzeari buruzko administrazio espedienteen zerrenda, ebazpena, jarraitutako irizpidea eta bakoitzaren ezaugarri nagusiak azalduz.

Iruñean, 1997ko ekainaren 12an.

Foru Parlamentaria: Ion Iñaki Erro Armendáriz.

---

# Ezkaba (San Cristobal) mendiaren egoerari eta aipatu mendian eta haren inguruan egin daitezkeen jarduketei buruzko galdera

*JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko ekainaren 16an egindako bilkuran, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Ezkaba (San Cristobal) mendiaren egoerari eta aipatu mendian eta haren inguruan egin daitezkeen jarduketei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko ekainaren 17a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**GALDERAREN EDUKIA**

José Javier Sánchez Turrillas “Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Biltzarreko 184. artikuluak eta hurrengoek xedatutakoaren babesean, idatzizko erantzuna eskatuz honako galdera hau egiten du:

Ezkaba mendia Iruñeko eta honen inguruko jolas-tokirik enblematikoenetakoa da. Bertan jolas eta kirol jarduera desberdinak egiten dira, esate baterako txangoak, mendiko txirrindula, parapentea eta abar, hau da, ia urte osoan zehar jende asko biltzen duten jarduerak. Halaber, erabilera sozial edo publikorako instalakuntza batzuk daude

bertan, tontorrean dauden komunikabideen antenak edo aintzinako bolborategiko depositoa.

Mendiko gainean ofizialki Alfonso XII. deituriko gotorlekua dago, gaur egun bertan behera utzita dagoena, hondamenditik gertu eta bertara hurbiltzen direnentzako arriskua ekar lezakeena. Dagoeneko XIII mendean egiten ziren gotorlekuen oinordekoa da instalazioa eta gaur ezagutzen dugun eraikinaren eraikuntza 1878an hasi eta 1910ean bukatu zen. 1934ko Asturiasko Iraultzatik 1945era arte espetxe militar eta politiko bezala erabili izan zen, eta barnetik alde egin zuten bederatziehun presoren ihesaren lekuko izan zen, hauetatik hirurehun inguruetan fusilaturik hil zirelarik, errepresiorik krudelenaren biktima. 1980tik aurrera Defentsa Ministerioak itxi zuen establezimendu militarra.

Gotorlekura iristeko Artikatik doan errepidean barrena joan behar da, gaur egun oso egoera txarrean dagoena eta guztiz hondatuta dauden hainbat zatitan zolaketaren egoerak tontorrera iritsi nahi dutenen zirkulazioa eragozten duelarik.

Mendiaren bi aldeetan Nafarroako erdialdean arruntak diren zuhaizti autoktonoak ikus daitezke, pinudi oihantzeak esate baterako, naturaren eta paisaiaren aldetik balio handia duten baso eremu zabal baten sorrera ahalbidetu dutenak, eta honen babesa eta iraupena Administrazio Publikoen betebeharra da.

Zenbait udalek eta herri ekimenek, Ezkabara urtero egiten den ibilaldiak, esate baterako, mendi hau aisialdiko naturgunea izendatzea eskatu diote Nafarroako Gobernuari, Nafarroako Gobernuak eremu honetaz duen iritzia ezagutzen ez dugularik, eta ez dakigu Gobernuak bertan jarduerak aztertzeko edo egiteko asmorik ote duen ere.

Honengatik guztiarengatik, Ezkaba mendiaren egoera eta bertan eta inguruan egin daitezkeen jarduerak direla-eta, honako galdera hauek erantzutea eskatzen da:

1. Nafarroako Gobernuak legegintzaldi honetan Ezkaba mendia naturgunea izendatzeko aukera aztertu al du edo egiteko borondaterik al du, honela naturaren, paisaiaren, kulturaren edo historiaren aldetik dituen baloreen iraupena berma dadin eta bertan Iruñeko eta inguruko bizilagunek izan ditzaketen erabilera eta gozamena antola daitezen?

2. San Cristobaleko gotorlekuaren eta bertara doan errepidearen titularitate administratiboa zer egoeratan dago? Defentsa Ministerioaren esku jarraitzen al du oraindik ere?

3. Titularra hura balitz, Defentsa Ministerioak gotorlekua eta errepidea epe motzean bere ondarera eskualdatzeko izapidaketak egiteko edo hasteko asmorik ba al du Nafarroako Gobernuak? Zer izapidaketa egin beharko lirateke Nafarroako Foru Komunitatea bien jabea izan dadin?

4. Komenigarri iruditzen al zaio Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuari jabearekiko hitzarmenaz nahiz beste bide batez, errepidearen zolaketa indartzea mendiaren erabilera eta gozamena eta ibilgailu motordunak bertara segurtasunez iristea ahalbidetzeko?

5. Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak legegintzaldi honetan planen bat edo mendian egiten diren erabilerak eta jarduerak nahiz natur eta kultur baloreak antolatzeko zerbait egitea aurreikusi al du?

6. Basoak zaintzeko eta hobetzeko nolako jarduerak aurreikusi ditu Nafarroako Gobernuak hurrengo urteetarako Ezkaba mendian? Piskanaka bertakoak ez diren zuhaiztien ordez autoktonoak jartzea aurreikusi al du? Inguruan basoetan jardun dezaketen udalen jardueren nolako jarraipena eta kontrola egiten da?

7. Gotorlekura doazen bisitarien segurtasuna bermatuko duten neurriak hartzea beharrezkoa dela uste al du Nafarroako Gobernuak, honela pertsonek arriskurik gabe bisitatu ahal dezaten?

8. San Cristobaleko gotorlekuan nolako erabilerak aurreikusten dira edo aurreikus daitezke? Gotorlekuan jarduera kultural, historiko, aisialdikoak, ostalaritzakoak edo bestelakoak egin daitezke ekimen pribatuarekin edo sozialarekin hitzartuz eta modu antolatuan? Toki honetarako ideia lehiaketarik egitea pentsatu al du Nafarroako Gobernuak?

9. Egoki iruditzen al zaio Nafarroako Gobernuari mendi magalean askaldegiak jartzea, bideak seinalizatzea, bere balore kultural eta historikoak gogoraraziko dituzten monumentuak edo mugarriak jartzea, edo balore hauen oroigarri eta adierazgarri gisa planoren bat argitaratzea?

10. Zein dira Iruñerriko Hirigintza Arauen prestaketa lanetan eta indarrean dagoen udal hirigintza planeamenduan mendirako dauden aurreikuspenak? Aurreikuspen hauek mendiaren babes nahikoa ziurtatzen al dute urbanizazio aukeren aurrean edo naturgune deklaratu arte eragin negatiboa izan dezaketen balizko beste jarduera batzuen aurrean?

11. Kultur Intereseko Ondasuna deklaratu al da San Cristobaleko gotorlekua? Hala ez bada, Hezkuntza eta Kultura Departamentuak legegin-

tzaldi honetan Kultur Intereseko Ondasun deklaratzeko asmorik al du?

12. Hezkuntza eta Kultura Departamentuak mendian dauden arkeologia aztarnategiei edo balore kultural eta historikoei buruzko ikerketarik egin al du? Egina ez balego, Nafarroako Gobernuak legegintzaldi honetan burutzeko borondaterik al du?

Iruñean, 1997ko ekainaren 11n.

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas.

---

# “Cuatrovientos” Institutu Tekniko Komertzialari buruzko galdera

*Mª ISABEL ARBONIES BERMEJO FORU PARLAMENTARI ANDREAK AURKEZTUA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko ekainaren 16an egindako bilkuran, Mª Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andreak “Cuatrovientos” Institutu Tekniko Komertzialari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko ekainaren 17a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**GALDERAREN EDUKIA**

Isabel Arboniés Bermejo “Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra” Parlamentari Taldeari atxikiriko Hezkuntza bozeramaleak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, idatzizko erantzuna eskatuz honako galdera hau egiten du:

“Cuatrovientos” Institutu Tekniko Komertzialak, gaur egun Lanbide Heziketako Administrazio eta Informatika irakasten dituen Iruñeko Sozietate Kooperatiboak, zentroan zientzietako batxilergoak eman ahal izateko baimena eskatu zuen 1994ko abenduan.

1995eko martxoaren 17an Santiago Arellano Hezkuntza Zuzendari Nagusiak batxilergo mailan Giza Zientzietan eta Natur Zientzietan hezkuntza zikloen eskaintza onartu zuen.

“Cuatrovientos” Institutu Tekniko Komertzialak LOGSEko irakaskuntzak emateko baldintzak arautzen dituen 1004/91 Foru Dekretuaren gutxieneko baldintzak betetzen ditu eta gainera, itun erregimenean sartzekotan, kooperatiba izanda lehentasunezko baldintza du, LODEko 48.3. artikuluak xedatutakoaren arabera.

Iruñeko Iparraldean izanik, azpimarratzekoa da gizartean erdeinatutako ikasleen heziketan funtzio berdintzaile bat ere bebetzen duela.

Gaur egun inguru horretan ez dago batxilergoa egiteko eskakizunei aurre egin diezaiekeen zentro bakar bat ere.

Halaber kontutan hartu behar da inguru guztian etxebizitza berrien hedatzeak populazioaren handitzea ekarriko duela eta hezkuntza eskaerari erantzun bat planifikatu beharko zaiola.

Honengatik guztiarengatik jakin nahi da:

Nafarroako Gobernuak, egun, “Cuatrovientos” Institutu Tekniko Komertzialari batxilergo mailak irakasteko baimenik emateko asmorik al du?

Zer batxilergo mota eskainiko dira Iruñeko Iparraldean?

“Cuatrovientos” Institutu Tekniko Komertziala Iparraldeko erreferentzi zentrotzat joko da eta lehentasuna emanen zaio batxilergo mailak ituntzerakoan?

Iruñean, 1997ko ekainaren 13an.

Bozeramalea: Isabel Arboniés Bermejo.

---

## Galdera, Nafarroako Gobernuak Nafarroako Parlamentuak Famili Orientazio eta Sexu Heziketa zentroak direla-eta hartu erabakia errespetatuko ote duen

*ION IÑAKI ERRO ARMENDARIZ FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko ekainaren 16an egindako bilkuran, ion Iñaki Erro Armendariz Foru Parlamentari jaunak Nafarroako Gobernuak Nafarroako Parlamentuak Famili Orientazio eta Sexu Heziketa zentroak direla-eta hartu erabakia errespetatuko ote duen itauntzen duen galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak ahozko erantzuna eskatu du, dagokion Batzordean emanen zaiona, Osasun Batzordean alegia.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko ekainaren 17a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**GALDERAREN EDUKIA**

Ion Iñaki Erro Armendáriz Foru Parlamentariak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduak Batzordean ahozko erantzuna eskatzen duten galderei buruz ezarritakoaren babesean, honako hau adierazten du:

Nafarroako Parlamentuak, ekainaren 11n Osasun Batzordeak izandako bilkuran, honako hau erabaki zuen: FOSHEZen papera eta populazioari emandako zerbitzuak aintzat hartzea eta eskertzea; zerbitzu honetan edozein hobekuntza eskaintza hedatzetik etorriko dela aldarrikatzea, gaur egungo lekuak eta langilegoa bere horretan utziz; FOSHEZak Oinarrizko Osasun Laguntzaren menpe egon behar dutela berrestea, horixe baita aukerarik egokiena, sexu eta ugaltze osasunaren hezkuntza, prebentzio eta laguntza arloetan unitateek Nafarroa osoan egindako berariazko jarduerak koordinatuko dituen zuzendariordetza baten bidez; gaur egun dauden FOSHEZ zentroak dagokien arloko Oinarrizko Osasun Laguntza Zuzendariordetzaren menpe egotea, beren funtzioak, tokiak eta langilegoa zehaztuz, Antsoain, Laira eta Argia zentroak Nafarroako FOSHEZen Zuzendaritzan sartze funtzionala, eta Zuzendaritza honek Ugaltze eta Sexu Osasunari buruzko Plan bat egitea.

Osasun Kontseilariak egindako adierazpenen aurrean, zeinetan Nafarroako Parlamentuaren aipatu erabakia eskua sartzetzat, absurdotzat eta gezurtzat jotzen baitzuen, hauxe eskatzen du: Erregelamenduko 189. artikuluak xedatuaren arabera, premiazko izapidaketa ematea Nafarroako Gobernuko Osasun Kontseilariak Foru Parlamentuko Osasun Batzordearen aurrean erantzuteko ahozko galderari.

Galdera:

Nafarroako Gobernuak nafar herriaren ordezkari den Nafarroako Parlamentuak FOSHEZei eta hauek Nafarroako gizarteari zuzendutako sexu eta ugal osasun laguntza ereduari buruz hartutako erabakia errespetatuko al du?

Iruñean, 1997ko ekainaren 13an.

Foru Parlamentaria: Ion Iñaki Erro Armendáriz

---

## Irakaskuntzarekin zerikusia duten zenbait gairi buruzko galdera (gizarte bermeko moduluak, Hezkuntzako Goi Batzarraren aldaketa eta abar)

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez Inmaculada Matías Angulo Foru Parlamentari andreak irakaskuntzarekin zerikusia duten zenbait gairi buruz (gizarte bermeko moduluak, Hezkuntzako Goi Batzarraren aldaketa eta abar) egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko otsailaren 28ko 14. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko apirilaren 12a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

Inmaculada Matías Angulo Foru Parlamentari andreak idatziz erantzuteko galdera egin du irakaskuntzarekin zerikusia duten zenbait gairi buruz. Hezkuntza eta Kultura Kontseilari jaunak hauxe darantzu:

1.- Gizarte Bermeko programen taxuketaren legezko oinarriak 100/1996 Foru Agindua eta 853/1996 Ebazpena ditugu.

2.- Departamentua azkentzen ari da egungo Hezkuntza Goi Batzarra aldatuko duen legearen zirriborroa. Lege proiektua laster bidali nahi zaio Parlamentuari (bilkuraldi honetan), Gobernuak aztertu ondoren.

3.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza abiatu zenetik ari da Departamentua aniztasunarekiko arreta hobetzeko ekintzetan. LOGSEren arabera, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzak izan behar duen gero eta gehiagoko aniztasuna besterik da, ordea, are gehiago laugarren mailari dagokiona, 1997/98 ikasturtean ezarriko baita. Komunikabideen bitartez ezagutu ahal dira Departamentuaren proiektuak, baina Hezkuntza Goi Batzarraren baitan aztertu beharko dira, gero Gobernuak onar ditzan.

4.- Foru Gobernuak Nafarroako hezkuntzaren interes orokorrari begiratzen dio; irakaskuntza hitzartuko langileek bere hitzarmena izatea sistemaren osotasunarentzako ona bada, ongi etorria eta errespetatua izango da; hala ere Nafarroako Gobernuak ez du eskurik sartu behar aldeei dagozkien lan-harremanetan.

5.- Homologazio hitza ezin zaio planteatuko egoerari aplikatu. LODEk eta beste lege-arauek ordainketa analogia erabiltzen dute irakaskuntza hitzartuko eta publikoko irakasleen artean. Hezkuntza Departamentuak Aurrekontuei buruzko legeek diotena bete behar du, horiek finkatzen baitituzte hezkuntza-hitzarmenen egitura eta zenbatekoa, eta horrek ezartzen du, finean, irakaskuntza hitzartuko eta publikoko irakasleen arteko ordainketa-analogia.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikuluak eta hurrengoek xedatua betez.

Iruñean, 1997ko apirilaren 20a

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros.

---

## Oinarrizko Osasun Laguntzaren ezarpenari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez Mª Rosario Villanueva Iturralde Foru Parlamentari andreak Oinarrizko Osasun Laguntzaren ezarpenari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko martxoaren 7ko 16. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko apirilaren 12a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeko kide den Mª Rosario Villanueva Iturralde Foru Parlamentari andreak idatziz erantzuteko galdera egin Nafarroako Oinarrizko Osasun Laguntzaren ezarpen konkretua legegintzaldi honetan bukatzeari buruz. Osasun Kontseilariak hauxe darantzu:

1.- Nafarroan Oinarrizko Osasun Laguntzaren ezarpena bukatzeko jarduketen egutegi zehatza.

Oinarrizko Osasun Laguntzako egiturak dagozkion osasun eskualde oinarrizkoetan ezartzea Autonomi Elkarte osora hedatu da, Donibane eta II. zabalgunekoetara ezik.

Ezarpena bukatzeko jarduketen egutegia hauxe da:

– Donibaneko Eskualde Oinarrizkoa: dagokion Foru Dekretua behin-betikoz amaitu eta N.A.O.n argitaratu behar da. 1997ko lehen seihilekoan ezartzeko asmoa dago.

II. zabalguneko Eskualde Oinarrizkoa: orube edo eraikuntza egokia izatearen menpe dago haren ezarpena. Egungo Soltxaga anbulategia erabiltzeko aukera dago, birmoldaketak behar

duen aurrekontu-izendapenaren menpe dagoelarik. 1998rako aurreikusi da beharrezko inbertsioa hastea, aurrekontu-arazorik ezean, behintzat.

2.- Gobernuak Oinarrizko Osasun Laguntza ezartzeko aurreikusi dituen inbertsioak, zeintzuk eta non?

3.- Zer kostu izango du ezarpenak, zatika eta guztira?

– Donibaneko Eskualde Oinarrizkoa:

Baliabide fisikoak: Donibaneko Osasun Zentro berria eraikitzea. Proiektu fasean dugu, egun, eta 420.000.000 pta. inguruko aurrekontua aurreikusi da horretarako.

Giza baliabideak: Gero eta langile gehiago jartzea: 3 mediku, 3 erizain, gizarte langile bat eta 2 administrari (42 milioi urtero, gutxi gorabehera, langile guzti horiengatik).

II. zabalguneko Eskualde Oinarrizkoa:

Baliabide fisikoak: Behin betiko kokapena eta birmoldatzeko ondorengo proiektua erabakitzeke daude.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikuluak eta hurrengoek xedatua betez.

Iruñean, 1997ko apirilaren 7a

Osasun Kontseilaria: Santiago Cervera Soto.

**G Saila:**
**JAKINARAZPENAK, DEIALDIAK ETA OHARRAK**

# Nafarroako Gobernuak 1997ko martxoan Nafarroako Parlamentura igorritako Foru Agindu eta Ebazpenak, haien bidez gauzatutako aurrekontu aldaketak eta Kontuen Ganbarak horri buruz emandako txostena

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak,1997ko apirilaren 7an egindako bilkuran, Kontuen Ganbarari txosten bat eskatzea erabaki zuen, aurrekontu aldaketak, Nafarroako Gobernuak 1997ko martxoan Nafarroako Parlamentura igorri zituen Foru Agindu eta Ebazpenen bidez gauzatuak, legezko ote diren aztertzeko.

Halaber, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko ekainaren 16an egindako bilkuran, Kontuen Ganbarak Foru Agindu eta Ebazpen haiei buruz eman duen txostenaz jakitun dagoela adieraztea erabaki zuen, baita txosten hori Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea ere.

Iruñean, 1997 ekainaren 17a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

---

**“33/1997 FORU AGINDUA,** otsailaren 25ekoa, Ekonomi eta Ogasun Kontseilariak emana, kreditu transferentziaren bidezko aurrekontu aldaketa baimentzen duena.

Ekonomi eta Ogasun Departamentuak kreditu transferentzia eskatu du, “Azterketak eta proiektuak” kontusailetik, 05890-5 lerrotik, 2.000.000 pezeta, “Aholkularitza azterketak eta lan teknikoak” kontusailera, 05855-7 lerrora.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeko 46. artikuluko 2. puntuaren arabera, kasuan kasuko Departamentuan, Nafarroako Gobernuko Kontseilariek programa bereko kredituen artean transferentziak baimen ditzakete. Hori horrela,

AGINDU DUT:

**Lehena.-** 1997rako indarra duen gastu aurrekontuan kreditu transferentzia hau egitea: “Azterketak eta proiektuak” 11000-6092-6111 kontusailetik, 10000 proiektutik, 05890-5 lerrotik, 2.000.000 pezeta, “Aholkularitza azterketak eta lan teknikoak” 11100-2276-6111 kontusailera, 10000 proiektura, 05855-7 lerrora.

**Bigarrena.-** Foru Agindu hau Nafarroako Parlamentuari, Ekonomi eta Ogasun Departamentuko Ekonomi Zuzendaritza Nagusiari, Kontabilitate eta Aurrekontu Atalei eta Departamentu hartako Kontuhartzailetza delegatuari jakinaraztea.

Iruñean, 1997ko otsailaren 25a

Ekonomi eta Ogasun Kontseilaria: José María Aracama Yoldi

---

**“56/1997 EBAZPENA,** otsailaren 14koa, Ekonomi Zuzendari Nagusiak emana, kreditu transferentziaren bidezko aurrekontu aldaketa baimentzen duena.

Ikusirik, Ekonomi eta Ogasun Departamentuko Idazkaritza Teknikoak kreditu transferentzia proposatu duela “Azterketak, txostenak eta beste” kontusailetik, 0800-6 lerrotik, 7.000.000 pezeta, “Kobrantzak eta antzekoak kudeatzeko zerbitzuak” kontusailera, 08765-4 lerrora, kopuru bera.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeko 46.2 artikuluan ezarririkaren arabera, kasuan kasuko Departamentuan, Nafarroako Gobernuko Kontseilariek programa bereko kredituen artean transferentziak baimen ditzakete eta Ekonomi eta Ogasun Kontseilariak urriaren 7an emaniko 233/1996 Foru Aginduaren bidez eskurordetu ditudan eskumenak erabiliz,

EBATZI DUT:

**Lehena.-** 1996rako indarra duen gastu aurrekontuan kreditu transferentzia hau egitea: “Azterketak, txostenak eta beste” 12500-6092-6310 kontusailetik, 25000 proiektutik, 0800-6 lerrotik, 7.000.000 pezeta, “Kobrantzak eta antzekoak kudeatzeko zerbitzuak” 12500-2272-6310 kontu-

sailera, 25000 proiektura, 08765-4 lerrora, kopuru bera.

Bigarrena. Ebazpen hau Nafarroako Parlamentuari, Dirubilketa Zerbitzuari, Kontabilitate eta Aurrekontu Atalei eta Ekonomi eta Ogasun Departamentuko Kontuhartzailetza delegatuari jakinaraztea.

Iruñean, 1997ko otsailaren 14a

Ekonomi Zuzendari Nagusia: Ignazio Arrizabalaga Rodríguez

---

**“61/1996 EBAZPENA,** otsailaren 17koa, Ekonomi Zuzendari Nagusiak emana, kreditu gehikuntzaren bidezko aurrekontu aldaketa baimentzen duena.

Lehendakaritza eta Barne Departamentuko Laguntza Juridiko eta Administratiboaren Zerbitzuak kreditu gehikuntza eskatu du “Epaiak betearaztea” kontusail berrian, 04205-7 lerroan, 2.338.672 pezeta. “Aurreko ekitaldietako superabitaren aplikazioa” kontusaileko, 34695-9 lerroko dirusarrera handiagoen kontu finantzatuko da.

1997rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 29ko 15/1995 Foru Legeko 4. artikuluko 1. puntuko a) letraren eta Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeko 45. artikuluaren arabera eta Ekonomi eta Ogasun Kontseilariak urriaren 7an emaniko 233/1996 Foru Aginduaren bidez eskuordeturik dauzkadan eskumen arabera,

EBATZI DUT:

**Lehena.-** 1997rako indarra duen gastu aurrekontuan kreditu gehikuntza hau egitea: “Epaiak betearaztea” 02400-4809-2211 kontusailean, 50002 proiektuan, 04205-7 lerroan, 2.338.672 pezeta. “Aurreko ekitaldietako superabitaren aplikazioa” 11400-8700 kontusaileko, 12000 proiektuko, 34695-9 lerroko dirusarrera handiagoen kontu finantzatuko da.

**Bigarrena.-** Ebazpen hau Nafarroako Parlamentuari, Lehendakaritza eta Barne Departamentuko Laguntza Juridiko eta Administratiboaren Zerbitzuari, Kontabilitate eta Aurrekontu Atalei eta Departamentu hartako Kontuhartzailetza delegatuari jakinaraztea.

Iruñean, 1997ko otsailaren 17a

Ekonomi Zuzendari Nagusia: Ignacio Arrizabalaga Rodríguez.

---

**“62/1996 EBAZPENA,** otsailaren 17koa, Ekonomi Zuzendari Nagusiak emana, kreditu gehikuntzaren bidezko aurrekontu aldaketa baimentzen duena.

Lehendakaritza eta Barne Departamentuko Lan Harremanen Zerbitzuak kreditu gehikuntza eskatu du “Epaiak betearaztea” kontusailean, 01690-07 lerroan, 2.531.221 pezeta. “Aurreko ekitaldietako superabitaren aplikazioa” kontusaileko, 34695-9 lerroko dirusarrera handiagoen kontu finantzatuko da.

1997rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 29ko 15/1995 Foru Legeko 4. artikuluko 1. puntuko a) letraren eta Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeko 45. artikuluaren arabera eta Ekonomi eta Ogasun Kontseilariak urriaren 7an emaniko 233/1996 Foru Aginduaren bidez eskuordeturik dauzkadan eskumen arabera,

EBATZI DUT:

**Lehena.-** 1997rako indarra duen gastu aurrekontuan kreditu gehikuntza hau egitea: “Epaiak betearaztea” 04000-1709-1226 kontusailean, 20000 proiektuan, 01690-0 lerroan, 2.531.221 pezeta. “Aurreko ekitaldietako superabitaren aplikazioa” 11400-8700 kontusaileko, 12000 proiektuko, 34695-9 lerroko dirusarrera handiagoen kontu finantzatuko da.

**Bigarrena.-** Ebazpen hau Nafarroako Parlamentuari, Lehendakaritza eta Barne Departamentuko Lan Harremanen Zerbitzuari, Kontabilitate eta Aurrekontu Atalei eta Departamentu hartako Kontuhartzailetza delegatuari jakinaraztea.

Iruñean, 1997ko otsailaren 17a

Ekonomi Zuzendari Nagusia: Ignacio Arrizabalaga Rodríguez.

---

**“81/1997 EBAZPENA,** otsailaren 26koa, Ekonomi Zuzendari Nagusiak emana, kreditu gainerapenaren bidezko aurrekontu aldaketak baimentzen dituena.

Toki Administrazioko Departamentuak kreditu gainerapena eskatu du, indarra duen gastu aurrekontuan, kontzeptu hauei dagokien 1996ko ekitaldiko likidazioan ezabaturiko kreditu soberakinetik.

• Goi tentsioaz hornitzeko Plan Zuzentzailea, 90006-9 lerroa, 343.361.603 pezeta.

• Ibaiak araztu eta saneatzeko Plan Zuzentzailea, 9200-6 lerroa, 6.496.455 pezeta.

• Hiri hondakin solidoak arazteko Plan Zuzentzailea, 00007-7 lerroa, 85.471.795 pezeta.

• Hiri hondakin solidoak biltzeko Plan Zuzentzailea, 92010-8 lerroa, 73.660.139 pezeta.

• Inbertsio Planerako azterketak,92005-1 lerroa, 20.000.000 pezeta.

• Zoladurak, 90004-2lerroa, 203.101.677 pezeta.

• Goi tentsioaz hornitzeak, plan zuzentzaileetan sarturik ez daudenak, 92007-8 lerroa, 6.138.936 pezeta.

*Hornitu eta saneatzeko toki sareak, 90005-0 lerroa, 311.362.993 pezeta.

• Argindarra paratzea, 92008-6 lerroa, 28.507.266 pezeta.

• Argiteria publikoa, 92009-4 lerroa, 80.552.065 pezeta.

• Herrietako bideak, 90012-3 lerroa, 14.071.227 pezeta.

• Udalen eraikinak, 90017-4 lerroa, 47.255.808 pezeta.

• Herrien Garapena, 92011-6 lerroa, 10.746.084 pezeta.

• 1993-1995 P.T.I. zerga zamaren kitapena, 10966-3 lerroa, 5.379.756 pezeta.

• Europako Batasuneko fondoekin finantzatu beharreko inbertsioen plan osagarria, 10960-3 lerroa, 154.889.295 pezeta.

1997rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko urtarrilaren 31ko Foru Legeko 17. artikuluko 7. puntuaaren eta Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeko 52. artikuluaren arabera eta Ekonomi eta Ogasun Kontseilariak urriaren 7an emaniko 233/1996 Foru Aginduaren bidez eskuordeturik dauzkadan eskumenak erabiliz,

EBATZI DUT:

**Lehena.-** 1997rako indarra duen aurrekontuan gaineratzea 1996ko ekitaldiko likidazioan ezabaturiko kreditu soberakinak, aurrekontuetako kontusail hauetan:

• Goi tentsioaz hornitzeko Plan Zuzentzailea, 2130-7600-4411 kontusaila, 13001 proiektua, 90006-9 lerroa, 343.361.603 pezeta.

• Ibaiak araztu eta saneatzeko Plan Zuzentzailea, 21300-7600-441 kontusaila, 13001 proiektua, 9200-6 lerroa, 6.496.455 pezeta.

• Hiri hondakin solidoak arazteko Plan Zuzentzailea, 21320-7600-4421 kontusaila, 13001 proiektua, 00007-7 lerroa, 85.471.795 pezeta.

• Hiri hondakin solidoak biltzeko Plan Zuzentzailea, 21320-7600-4421 kontusaila, 13001 proiektua, 92010-8 lerroa, 73.660.139 pezeta.

• Inbertsio Planerako azterketak, 21310-7600-9122 kontusaila, 13001 proiektua, 92005-1 lerroa, 20.000.000 pezeta.

• Zoladurak, 21320-7600-4323 kontusaila, 13002 proiektua, 90004-2lerroa, 203.101.677 pezeta.

• Goi tentsioaz hornitzeak, plan zuzentzaileetan sarturik ez daudenak, 21310-7600-4411 kontusaila, 13002 proiektua, 92007-8 lerroa, 6.138.936 pezeta.

*Hornitu eta saneatzeko toki sareak, 21310-7600-4411 kontusaila, 13002 proiektua, 90005-0 lerroa, 311.362.993 pezeta.

• Argindarra paratzea, 21320-7600-4431 kontusaila, 13002 proiektua, 92008-6 lerroa, 28.507.266 pezeta.

• Argiteria publikoa, 21320-7600-4431 kontusaila, 13002 proiektua, 92009-4 lerroa, 80.552.065 pezeta.

• Herrietako bideak, 21320-7600-5343 kontusaila, 13002 proiektua, 90012-3 lerroa, 14.071.227 pezeta.

• Udalen eraikinak, 21320-7600-9122 kontusaila, 13002 proiektua, 90017-4 lerroa, 47.255.808 pezeta.

• Herrien Garapena,21320-7600-9122 kontusaila, 13002 proiektua, 92011-6 lerroa, 10.746.084 pezeta.

• 1993-1995 P.T.I. zerga zamaren kitapena, 21300-7600-9122 kontusaila, 13002 proiektua, 10966-3 lerroa, 5.379.756 pezeta.

• Europako Batasuneko fondoekin finantzatu beharreko inbertsioen plan osagarria, 21330-7600-9122 kontusaila, 13000 proiektua, 10960-3 lerroa, 154.889.295 pezeta.

**Bigarrena.-** Aipatu diren kreditu gainerapenak, guztira 1.390.955.099 pezeta egiten dutenak, “Aurreko ekitaldietako superabitaren aplikazioa” 11400-8700 kontusaileko, 1200 proiektuko, 34695-9 lerroko dirusarrera handiagoen kontu finantzatuko dira.

**Hirugarrena.-** Foru Agindu hau Nafarroako Parlamentuari, Toki Administrazioko Departamentuari, Kontabilitate eta Aurrekontu Atalei eta Departamentu hartako Kontuhartzailetza delegatuari jakinaraztea.

Iruñean, 1996ko otsailaren 26a

Ekonomi Zuzendari Nagusia: Ignacio Arrizabalaga Rodríguez.

**“85/1996 EBAZPENA,** otsailaren 27koa, Ekonomi Zuzendari Nagusiak emana, kreditu gehikuntzaren bidezko aurrekontu aldaketa baimentzen duena.

Lehendakaritza eta Barne Departamentuko Funtzio Publikoaren Antolamenduaren Zerbitzuak kreditu gehikuntza eskatu du “Epaiak betearaztea” kontusailean, 01690-0 lerroan, 1.031.009 pezeta. “Aurreko ekitaldietako superabitaren aplikazioa” kontusaileko, 34695-9 lerroko dirusarrera handiagoen kontu finantzatuko da.

1997rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 29ko 15/1995 Foru Legeko 4. artikuluko 1. puntuko a) letraren eta Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeko 45. artikuluaren arabera eta Ekonomi eta Ogasun Kontseilariak urriaren 7an emaniko 233/1996 Foru Aginduaren bidez eskuordeturik dauzkadan eskumen arabera,

EBATZI DUT:

**Lehena.-** 1997rako indarra duen gastu aurrekontuan kreditu gehikuntza hau egitea: “Epaiak betearaztea” 0400-1709-1226 kontusailean, 20000 proiektuan, 01690-0 lerroan, 1.031.009 pezeta. “Aurreko ekitaldietako superabitaren aplikazioa” 11400-8700 kontusaileko, 12000 proiektuko, 34695-9 lerroko dirusarrera handiagoen kontu finantzatuko da.

**Bigarrena.-** Ebazpen hau Nafarroako Parlamentuari, Lehendakaritza eta Barne Departamentuko Funtzio Publikoaren Antolamenduaren Zerbitzuari, Kontabilitate eta Aurrekontu Atalei eta Departamentu hartako Kontuhartzailetza delegatuari jakinaraztea.

Iruñean, 1997ko otsailaren 27a

Ekonomi Zuzendari Nagusia: Ignacio Arrizabalaga Rodríguez.

---

**“74/1997 EBAZPENA,** Gizarte Ongizateko Zuzendari Nagusiak emana, “Inbertsioen azterketak eta plangintza” 10 programako kontusailen artean transferentzia baimentzen duena.

Ikusirik Afera Ekonomiko eta Araubide Administratiboaren Atalaren txostena, 1997rako gastu aurrekontuan programa bereko kontusailen artean transferentzia proposatzen duena, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko 8/1988 Foru Legeko 46. artikuluan ezarririkoarekin bat.

Horregatik eta Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Kontseilariak irailaren 26an emaniko 446/1996 Foru Aginduaren eskuordeturik dauzkadan eskumenak erabiliz,

EBATZI:

**1.** 1997rako gastu aurrekontuan “Inbertsioen azterketak eta plangintza” 10 programako kontusailen artean transferentzia hau egitea:

| Gutxitu beharreko kontusaila | | Zenbatekoa |
|---|---|---|
| 91110-6090-3130 31160 lerroa, | “Azerketak eta proiektuak” | 2.000.000 |

| Gehitu beharreko kontusaila | | Zenbatekoa |
|---|---|---|
| 91110-2266-3130 31140-6 lerroa, | “Prestakuntza gastuak” | 2.000.000 |

**2.** Ebazpen hau Nafarroako Parlamentuari eta Afera Ekonomiko eta Araubide Administratiboaren Atalari jakinaraztea, behar diren ondorioak sor ditzan.

Iruñean, 1997ko martxoaren 14a

Zuzendari Nagusia: José Luis Alli Fernández

---

## KONTUEN GANBARAREN TXOSTENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko apirilaren 7an harturiko Erabakiaren bidez, aurrekontuetan eginiko hainbat aldaketaren legezkotasunari buruz txostena eskatzea onartu zuen. Nafarroako Gobernuko hainbat Kontseilari eta Zuzendari Nagusiren zenbait Foru Agindu eta Ebazpenek eragin zituzten aldaketa horiek eta aurtengo martxoan igorri zizkioten Parlamentuari. Horiei buruz, Kontuen Ganbarak txosten hau eman du:

Aurrekontu-aldaketak zenbait kreditu gehikuntza, kreditu transferentzia eta kreditu gainerapen dira, indarra duen legeriarekin bat datozenak, kasu horretarako eskumena duen erakundeak egin baititu. Bestalde, aldaketa horiek bat datoz Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/88 Foru Legeko 45tik 53ra bitarteko artikuluak eta 1997ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontuei buruzko urtarrilaren 31eko 1/97 3 eta 4 artikuluak ezarririkoarekin.

Iruñean, 1997ko ekainaren 4a

Lehendakaria: Fco. Javier Tuñón San Martín

# Nafarroako Gobernuak 1997ko apirilean Nafarroako Parlamentura igorritako Foru Agindua eta Ebazpenak, haien bidez gauzatutako aurrekontu aldaketak eta Kontuen Ganbarak horri buruz emandako txostena

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko maiatzaren 5ean egindako bilkuran, Kontuen Ganbarari txosten bat eskatzea erabaki zuen, aurrekontu aldaketak, Nafarroako Gobernuak 1997ko apirilean Nafarroako Parlamentura igorri zituen Foru Aginduaren eta Ebazpenen bidez gauzatuak, legezko ote diren aztertzeko.

Halaber, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko ekainaren 16an egindako bilkuran, Kontuen Ganbarak Foru Agindu hari eta Ebazpen haiei buruz eman duen txostenaz jakitun dagoela adieraztea erabaki zuen, baita Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea ere.

Iruñean, 1997ko ekainaren 17a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

---

**“1541/1997 FORU AGINDUA,** martxoaren 26koa, Herrilan, Garraio eta Komunikazioa Kontseilariak emana, indarreko aurrekontuko kontusailen arteko kreditu transferentzia baimentzen duena.

Ikusirik Kontserbazio eta Kudeaketa Teknologikoko Zerbitzuak eginiko eskaria, programa bereko kredituen arteko transferentzia egiteko, 45.000.000 pezeta jotzen duena, eta kontuan izanik Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko 8/1988 Foru Legeko 46.2.b) artikuluak ezarritakoaren arabera.

AGINDU DUT:

**1go.-** Hurrengo idazpen kontablea sortarazten duen kreditu transferentzia egitea indarreko Aurrekontuan:

| | | |
|---|---|---|
| 61200/6030/5135<br>Lerroa, 24.790-2 | Makinaria | 45.000.000 |
| | | 45.000.000 |

tik

| | | |
|---|---|---|
| 61200/6010/5135<br>Lerroa, 24.840-2 | Kontrata bidezko kontserbazioa | 45.000.000 |
| | | 45.000.000 |

ra

**2gn.-** Ebazpen hau hurrengoei jakinaraztea: Nafarroako Parlamentuari, Departamentuko Idazkaritza Teknikoari ( Kudeaketa Ekonomikoko Bulegoa), Kontserbazio eta Kudeaketa Teknologikoko Zerbitzuari eta Ogasunak Departamentuan duen Kontuhartzaile delegatuari, bidezko ondorioetarako.

Iruñean, 1997ko apirilaren 1a

Herrilan, Garraio eta Komunikazioa Kontseilaria: José Ignacio Palacios Zuasti”

---

**“116/1997, EBAZPENA,** martxoaren 7koa, Ekonomi Zuzendari Nagusiak emana, kreditu gehikuntzaren ondoriozko aurrekontu aldaketa baimentzen duena.

Lehendakaritza eta Barne Departamentuko Langileri Zerbitzuak kreditu gehikuntza eskatu du hurrengo kontusailean: izena, “Aurretiko jubilazioarengatiko kalteordaina, 259/1988 Foru Dekretua”, lerroa, 02030-4, kopurua, 9.461.515 pezeta, hurrengo kontusailean izandako dirusarrera handiagoen kontura: izena, “Aurreko ekitaldietako superabitaren aplikazioa”, lerroa, 34695-9.

1997rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko urtarrilaren 31ko 1/1997 Foru Legeko 4. artikuluko 1 puntuko e) letrak eta Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeko 45. artikuluak ezarritakoarekin bat, eta Ekonomi eta Ogasun Kontseilariak urriaren 7an emaniko 233/1996 Foru Aginduaren bidez nere esku utzitako ahalmenak erabiliz,

EBATZI DUT:

**Lehena.-** 1997ko indarreko gastu aurrekontuan kreditu gehikuntza burutzea, hurrengo kontusailetik: 04120-1614-3141, proiektua, 20002, lerroa, 02030-4, izena, “Aurretiko jubilazioarengatiko kalteordaina, 259/1988 Foru Dekretua”, kopurua, 9.461.515 pezeta; hurrengo kontusailean izandako dirusarrera handiagoen kontura finantzatuko da: 11400-8700, proiektua, 12000, lerroa, 34695-9, izena, “Aurreko ekitaldietako superabitaren aplikazioa”.

**Bigarrena.-** Ebazpen hau hurrengoei helaraztea: Nafarroako Parlamentuari, Lehendakaritza eta Barne Departamentuari (Langileri Zerbitzuari), Kontabilitate eta Aurrekontu Atalei eta aipatu Departamentuko kontuhartzailetza delegatuari.

Iruñean, 1997ko martxoaren 12a

Ekonomi Zuzendari Nagusia: Ignacio Arrizabalaga Rodríguez”

**“128/1997 EBAZPENA,** martxoaren 17koa, Ekonomi Zuzendari Nagusiak emana, kreditu gehikuntzaren ondoriozko aurrekontu aldaketa baimentzen duena.

Lehendakaritza eta Barne Departamentuko Laguntza Juridiko eta Administratiboko Zerbitzuak kreditu gehikuntza eskatu du hurrengo kontusailean: izena “Dirulaguntzak”, lerroa, 04200-6, kopurua, 1.000.000 pezeta, hurrengo kontusailean izandako dirusarrera handiagoen kontura: izena, “Aurreko ekitaldietako superabitaren aplikazioa”, lerroa, 34695-9.

1997rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko urtarrilaren 31ko 1/1997 Foru Legeko 4. artikuluko 1 puntuko i) letrak eta Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeko 45. artikuluak ezarritakoarekin bat, eta Ekonomi eta Ogasun Kontseilariak urriaren 7an emaniko 233/1996 Foru Aginduaren bidez nere esku utzitako ahalmenak erabiliz,

EBATZI DUT:

**Lehena.-** 1997ko indarreko gastu aurrekontuan kreditu gehikuntza burutzea, hurrengo kontusailetik: 02400-4809-2211, proiektua, 50002, lerroa, 04200-6, izena, “Dirulaguntzak”, kopurua, 1.000.000 pezeta. Hurrengo kontusailean izandako dirusarrera handiagoen kontura finantzatuko da: 11400-8700, proiektua, 12000, lerroa, 34695-9, izena “Aurreko ekitaldietako superabitaren aplikazioa”, lerroa".

**Bigarrena.-** Ebazpen hau hurrengoei helaraztea: Nafarroako Parlamentuari, Lehendakaritza eta Barne Departamentuari (Barneko Laguntza Juridiko eta Administratiboko Zerbitzuari), Kontabilitate eta Aurrekontu Atalei eta aipatu Departamentuko kontuhartzailetza delegatuari.

Iruñean, 1997ko martxoaren 17a

Ekonomi Zuzendari Nagusia: Ignacio Arrizabalaga Rodríguez”

---

**“130/1997 EBAZPENA,** martxoaren 17koa, Ekonomi Zuzendari Nagusiak emana, kreditu transferentziaren ondoriozko aurrekontu aldaketa baimentzen duena.

Ekonomi eta Ogasun Departamentuko Dirubilketa Zerbitzuak kreditu-transferentzia eskatu du, hurrengo gastu-kontusailetik: izena, “Zorrak exekutatzeko azterketa eta balorazioak”, lerroa, 08960-6; hurrengo aurrekontu-kontusailera: izena, “Kobraketen kudeaketa, jakinarazpenak eta antzeko zerbitzuak”, lerroa, 08920-7, kopurua, 7.000.000 pezeta.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeko 46.2 artikuluaren arabera, Nafarroako Gobernuko kontseilariek, zeinek bere Departamentuaren baitan, programa bereko kredituen arteko transferentziak baimen ditzakete. Ekonomi eta Ogasun Kontseilariak urriaren 7an emaniko 233/1996 Foru Aginduaren bidez nere esku utzitako ahalmenak erabiliz,

EBATZI DUT:

**Lehena.-** 1997ko indarreko gastu aurrekontuan kreditu transferentzia burutzea, hurrengo gastu-kontusailetik: 12520-6092-6124, proiektua, 25002, lerroa, 08960-6, izena, “Zorrak exekutatzeko azterketa eta balorazioak”; hurrengo aurrekontu-kontusailera: 12520-2272-6124, proiektua, 25002, lerroa, 08920-7, izena, “Kobraketen kudeaketa, jakinarazpenak eta antzeko zerbitzuak” kopurua, 7.000.000 pezeta.

**Bigarrena.-** Ebazpen hau hurrengoei helaraztea: Nafarroako Parlamentuari, Ekonomi eta Ogasun Departamentuari (Dirubilketa Zerbitzuari), Kontabilitate eta Aurrekontu Atalei eta aipatu Departamentuko kontuhartzailetza delegatuari.

Iruñean, 1997ko martxoaren 17a

Ekonomi Zuzendari Nagusia: Ignacio Arrizabalaga Rodríguez”

---

**“131/1997EBAZPENA,** martxoaren 17koa, Ekonomi Zuzendari Nagusiak emana, kreditu sorkuntzaren ondoriozko aurrekontu aldaketa baimentzen duena.

Hezkuntza eta Kultura Departamentuak kreditu sorkuntza egitea eskatu du hurrengo gastu-kontusailean: “Funtzionarioen zerbitzu-eginkizunen ordainketak”, lerroa, 14165-9, kopurua, 4.666.666 pezeta. Hurrengo aurrekontu-kontusailean izandako dirusarrera handiagoen kontura finantzatuko da: “Bibliografi ondarearen katalogo kolektiboarendako transferentziak", lerroa, 36425-6.

Ogasun Publikoari buruzko 8/1988 Foru Legeko 50 artikuluak xedatuaren arabera eta, Ekonomi eta Ogasun Kontseilariak urriaren 7an emaniko 233/1996 Foru Aginduaren bidez eskuordeturik dauzkadan ahalmenak erabiliz,

EBATZI DUT:

**Lehena.-** 1997ko indarreko gastu aurrekontuan kreditu sorkuntza burutzea, hurrengo kontusailean: 42120-1230-4561, proiektua, 51000, lerroa, 14165-9, izena, “Funtzionarioen zerbitzu-eginkizunen ordainketak”, kopurua, 4.666.666 pezeta. Hurrengo aurrekontu-kontusailean izanda-

ko dirusarrera handiagoen kontura finantzatuko da: 42120-4000, proiektua, 51000, lerroa, 36425-6, izena, aipatu kopuruarekin.

**Bigarrena.-** Ebazpen hau hurrengoei helaraztea: Nafarroako Parlamentuari, Hezkuntza eta Kultura Departamentuari (Kultura Zuzendaritza Nagusiari), Kontabilitate eta Aurrekontu Atalei eta aipatu Departamentuko kontuhartzailetza delegatuari.

Iruñean, 1997ko martxoaren 17a

Ekonomi Zuzendari Nagusia: Ignacio Arrizabalaga Rodríguez"

---

**136/1997 EBAZPENA,** martxoaren 20koa, Ekonomi Zuzendari Nagusiak emana, kreditu sorkuntzaren ondoriozko aurrekontu aldaketa baimentzen duena.

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak kreditu gehikuntza egitea eskatu du hurrengo gastu-kontusailean: "FEOGA eta IFOP laguntzak", lerroa, 27940-5, kopurua, 106.487.743. Hurrengo aurrekontu-kontusailean izandako dirusarrera handiagoen kontura finantzatuko da: "FEOGA eta IFOP laguntzak, EEE: 866/90 eta 867/90 erregelamenduen baitan", lerroa, 38000-6, aipatu kopuruarekin.

Ogasun Publikoari buruzko 8/1988 Foru Legeko 50 artikuluko 1 puntuko a) letraren arabera, ezartzen da aurrekontuetan gastu estatuan kredituak sortzen ahalko dituztela dirusarrerek, Administrazio Publikoek Foru Komunitateko Administrazioarekin batera gastu batzuk finantzatzeko ekarririko dirusarreren ondoriozkoak badira eta gastu horiek, beren izaeragatik haien helburu edo xedeen barruan badaude. Aipatu artikuluak, 2 puntuan, xedatzen du Ekonomi eta Ogasun Kontseilaria dela eskudun aurrekontu-aldaketa horiek baimentzeko eta, Ekonomi eta Ogasun Kontseilariak urriaren 7an emaniko 233/1996 Foru Aginduaren bidez eskuordeturik dauzkadan ahalmenak erabiliz,

EBATZI DUT:

**Lehena.-** 1997ko indarreko gastu aurrekontuan kreditu sorkuntza burutzea, hurrengo kontusailean:

– 71220-7701-7242, proiektua, 50001, denominada "FEOGA eta IFOP laguntzak ", lerroa, 27940-5, kopurua, 106.487.743 pezeta.

Hurrengo aurrekontu-kontusailean izandako dirusarrera handiagoen kontura finantzatuko da:

– 71220-7902, izena, "FEOGA eta IFOP laguntzak, EEE: 866/90 eta 867/90 erregelamenduen baitan", lerroa, 38000-6.

**Bigarrena.-** Ebazpen hau hurrengoei helaraztea: Nafarroako Parlamentuari, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuari, Kontabilitate eta Aurrekontu Atalei eta aipatu Departamentuko kontuhartzailetza delegatuari.

Iruñean, 1997ko martxoaren 20a

Ekonomi Zuzendari Nagusia: Ignacio Arrizabalaga Rodríguez"

---

**"143/1997 EBAZPENA,** martxoaren 24koa, Ekonomi Zuzendari Nagusiak emana, kreditu sorkuntzaren ondoriozko aurrekontu aldaketa baimentzen duena.

Toki Administrazioko Departamentuak kreditu gehikuntza egitea eskatu du hurrengo gastu-kontusailean: "Toki entitateendako transferentziak. 5b helburuko ekintza-programa (FEDER)" lerroa, 09790-0, kopurua, 7.692.758 pezeta; hurrengo aurrekontu-kontusailean izandako dirusarrera handiagoen kontura: "Toki entitateendako transferentziak. 5b helburuko ekintza-programa (FEDER)", lerroa, 35520-6.

Ogasun Publikoari buruzko 8/1988 Foru Legeko 50 artikuluak xedatuaren arabera eta, Ekonomi eta Ogasun Kontseilariak urriaren 7an emaniko 233/1996 Foru Aginduaren bidez eskuordeturik dauzkadan ahalmenak erabiliz,

EBATZI DUT:

**Lehena.-** 1997ko indarreko gastu aurrekontuan kreditu sorkuntza burutzea, hurrengo kontusailean: 21330-7600-9129, proiektua, 13000, lerroa, 09790-0, izena, "Toki entitateendako transferentziak. 5b helburuko ekintza-programa (FEDER)", kopurua, 7.692.758 pezeta. Hurrengo aurrekontu-kontusailean izandako dirusarrera handiagoen kontura finantzatuko da: 21330-7901, proiektua, 13000, lerroa, 35520-6, izena "Toki entitateendako transferentziak. 5b helburuko ekintza-programa (FEDER)".

**Bigarrena.-** Ebazpen hau hurrengoei helaraztea: Nafarroako Parlamentuari, Toki Administrazioko Departamentuari, Kontabilitate eta Aurrekontu Atalei eta aipatu Departamentuko kontuhartzailetza delegatuari.

Iruñean, 1997ko martxoaren 24a

Ekonomi Zuzendari Nagusia:Ignacio Arrizabalaga Rodríguez"

**“144/1997 EBAZPENA,** martxoaren 24koa, Ekonomi Zuzendari Nagusiak emana, kreditu gehikuntzaren ondoriozko aurrekontu aldaketa baimentzen duena.

Lehendakaritza eta Barne Departamentuko Lan Harremanetarako Zerbitzuak kreditu gehikuntza eskatu du hurrengo kontusailean: “Epaiak betearaztea”, lerroa, 01690-0, kopurua, 5.130.782 pezeta, hurrengo kontusailean izandako dirusarrera handiagoen kontura: izena, “Aurreko ekitaldietako superabitaren aplikazioa”, lerroa, 34695-9.

1997rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko urtarrilaren 31ko 1/1997 Foru Legeko 4. artikuluko 1 puntuko a) letrak eta Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeko 45. artikuluak ezarritakoarekin bat, eta Ekonomi eta Ogasun Kontseilariak urriaren 7an emaniko 233/1996 Foru Aginduaren bidez nere esku utzitako ahalmenak erabiliz,

EBATZI DUT:

**Lehena.-** 1997ko indarreko gastu aurrekontuan kreditu gehikuntza burutzea, hurrengo kontusailetik: 04000-1709-1226, proiektua, 20000, lerroa, 01690-0, denominada “Epaiak betearaztea”, kopurua, 5.130.782 pezeta. Hurrengo kontusailean izandako dirusarrera handiagoen kontura finantzatuko da: 11400-8700, proiektua, 12000, lerroa, 34695-9, izena “Aurreko ekitaldietako superabitaren aplikazioa".

**Bigarrena.-** Ebazpen hau hurrengoei helaraztea: Nafarroako Parlamentuari, Lehendakaritza eta Barne Departamentuari (Lan Harremanetarako Zerbitzuari), Kontabilitate eta Aurrekontu Atalei eta aipatu Departamentuko kontuhartzailetza delegatuari.

Iruñean, 1997ko martxoaren 24a

Ekonomi Zuzendari Nagusia: Ignacio Arrizabalaga Rodríguez”

---

**“145/1997 EBAZPENA,** martxoaren 24koa, Ekonomi Zuzendari Nagusiak emana, kreditu sorkuntzaren ondoriozko aurrekontu aldaketa baimentzen duena.

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuak kreditu gehikuntza egitea eskatu du hurrengo aurrekontu-kontusailean: “Partzuergoak kudeatzeko transferentziak”, lerroa, 30130-3, kopurua, 16.000.000 pezeta. Hurrengo aurrekontu-kontusailean izandako dirusarrera handiagoen kontura finantzatuko da: “Estatuko Administrazioak Futures Planarendako egin transferentziak”, lerroa, 38485-0.

Ogasun Publikoari buruzko 8/1988 Foru Legeko 50 artikuluko 1 puntuko a) letraren arabera, ezartzen da aurrekontuetan gastu estatuan kredituak sortzen ahalko dituztela dirusarrerek, Administrazio Publikoek Foru Komunitateko Administrazioarekin batera gastu batzuk finantzatzeko ekarririko dirusarreren ondoriozkoak badira eta gastu horiek, beren izaeragatik haien helburu edo xedeen barruan badaude. Aipatu artikuluak, 2 puntuan, xedatzen du Ekonomi eta Ogasun Kontseilaria dela eskudun aurrekontu-aldaketa horiek baimentzeko eta, Ekonomi eta Ogasun Kontseilariak urriaren 7an emaniko 233/1996 Foru Aginduaren bidez eskuordeturik dauzkadan ahalmenak erabiliz,

EBATZI DUT:

**Lehena.-** 1997ko indarreko gastu aurrekontuan kreditu sorkuntza burutzea, hurrengo kontusailean:

– 82210-4810-7512, proiektua, 50001, lerroa, 30130-3, izena, “Partzuergoak kudeatzeko transferentziak”, kopurua, 16.000.000 pezeta.

Hurrengo aurrekontu-kontusailean izandako dirusarrera handiagoen kontura finantzatuko da:

– 82210-4000, proiektua, 50001, lerroa, 38485-0, izena, “Estatuko Administrazioak Futures Planarendako egin transferentziak”.

**Bigarrena.-** Ebazpen hau hurrengoei helaraztea: Nafarroako Parlamentuari, Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuari, Kontabilitate eta Aurrekontu Atalei eta aipatu Departamentuko kontuhartzailetza delegatuari.

Iruñean, 1997ko martxoaren 24a

Ekonomi Zuzendari Nagusia: Ignacio Arrizabalaga Rodríguez”

---

**“150/1997 EBAZPENA,** martxoaren 26koa, Ekonomi Zuzendari Nagusiak emana, kreditu sorkuntzaren ondoriozko aurrekontu aldaketa baimentzen duena.

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak kreditu gehikuntza egitea eskatu du hurrengo aurrekontu-kontusailean: “Esne kuotak erostea abeltzaintza alorrean banatzeko”, lerroa, 97085-0, kopurua, 21.456.315 pezeta. Hurrengo aurrekontu-kontusailean izandako dirusarrera handiagoen kontura finantzatuko da: “Esne-kuotak erosteko kofinantziazioa”, lerroa, 37705-6.

Ogasun Publikoari buruzko 8/1988 Foru Legeko 50 artikuluko 1 puntuko a) letraren arabera, ezartzen da aurrekontuetan gastu estatuan kredituak sortzen ahalko dituztela dirusarrerek, Administrazio

Publikoek Foru Komunitateko Administrazioarekin batera gastu batzuk finantzatzeko ekarririko dirusarreren ondoriozkoak badira eta gastu horiek, beren izaeragatik haien helburu edo xedeen barruan badaude. Aipatu artikuluak, 2 puntuan, xedatzen du Ekonomi eta Ogasun Kontseilaria dela eskudun aurrekontu-aldaketa horiek baimentzeko eta, Ekonomi eta Ogasun Kontseilariak urriaren 7an emaniko 233/1996 Foru Aginduaren bidez eskuordeturik dauzkadan ahalmenak erabiliz,

EBATZI DUT:

**Lehena.-** 1997ko indarreko gastu aurrekontuan kreditu sorkuntza burutzea, hurrengo kontusailean: 71120-6090-5313, proiektua, 10001, lerroa, 97085-0, izena, "Esne-kuotak erostea abeltzaintza alorrean banatzeko", kopurua, 21.456.315 pezeta

Hurrengo aurrekontu-kontusailean izandako dirusarrera handiagoen kontura finantzatuko da: 71120-7000, proiektua, 10001, lerroa, 37705-6, denominada "Esne-kuotak erosteko kofinantziazioa".

**Bigarrena.-** Ebazpen hau hurrengoei helaraztea: Nafarroako Parlamentuari, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuari, Kontabilitate eta Aurrekontu Atalei eta aipatu Departamentuko kontuhartzailetza delegatuari.

Iruñean, 1997ko martxoaren 26a

Ekonomi Zuzendari Nagusia: Ignacio Arrizabalaga Rodríguez"

**"151/1997 EBAZPENA,** martxoaren 26koa, Ekonomi Zuzendari Nagusiak emana, kreditu gehikuntzaren ondoriozko aurrekontu aldaketa baimentzen duena.

Ekonomi eta Ogasun Departamentuko Kanpo Ekintza Zerbitzuak kreditu gehikuntza eskatu du hurrengo kontusailetan: izena, "Ekintzak: INTERREG II, LEADER II, NOW II, YOUTHSTART I, HORIZON II, eta beste", lerroa, 07370-0 kopurua, 10.000.000 pezeta; lerroa, 07390-4 kopurua, 4.000.000 pezeta;lerroa, 07420-0 kopurua, 60.000.000 pezeta eta lerroa, 07440-4 kopurua, 146.000.000 pezeta, guztizko kopurua 220.000.000 pezeta delarik; hurrengo kontusailean izandako dirusarrera handiagoen kontura : "Aurreko ekitaldietako superabitaren aplikazioa", lerroa, 34695-9.

1997rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko urtarrilaren 31ko 1/1997 Foru Legeko 4. artikuluko 2. puntuko b) letrak eta Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeko 45. artikuluak ezarritakoarekin bat, eta Ekonomi eta Ogasun Kontseilariak urriaren 7an emaniko 233/1996 Foru Aginduaren bidez nere esku utzitako ahalmenak erabiliz,

EBATZI DUT:

**Lehena.-** 1997ko indarreko gastu aurrekontuan kreditu gehikuntza burutzea, hurrengo kontusailetan:

| Kontusaila | Kontzeptua | Zenbat (pta.) |
|---|---|---|
| 11610-4100-1341, proiektua, 16001, lerroa, 07370-0 | Ekintzak, INTERREG II, LEADER II, NOW II, YOUTHSTART I; HORIZON II, eta beste | 10.000.000 |
| 11610-4455-1341, proiektua, 16001, lerroa, 07390-4 | Ekintzak, INTERREG II, LEADER II, NOW II, YOUTHSTART I; HORIZON II, eta beste | 4.000.000 |
| 11610-4709-1341, proiektua 16001, lerroa, 07420-0 | Ekintzak INTERREG II, LEADER II, NOW II, YOUTHSTART I; HORIZON II, eta beste | 60.000.000 |
| 11610-4810-1341, proiektua 16001, lerroa, 07440-4 | Ekintzak INTERREG II, LEADER II, NOW II, YOUTHSTART I; HORIZON II, eta beste | 146.000.000 |
| Guztira | | 220.000.000 |

Hurrengo kontusailaren dirusarrera handiagoen kontura finatzatuko da: 11400-8700, proiektua, 12000, lerroa, 34695-9, izena, "Aurreko ekitaldietako superabitaren aplikazioa".

**Bigarrena.-** Ebazpen hau hurrengoei helaraztea: Nafarroako Parlamentuari, Ekonomi eta Ogasun Departamentuari (Kanpo Ekintza Zerbitzuari), Kontabilitate eta Aurrekontu Atalei eta aipatu Departamentuko kontuhartzailetza delegatuari.

Iruñean, 1997ko martxoaren 26a

Ekonomi Zuzendari Nagusia: Ignacio Arrizabalaga Rodríguez"

**"158/1997 EBAZPENA,** martxoaren 20koa, Merkataritza eta Turismo Zuzendari Nagusiak emana, 1997ko aurrekontuko kontusailen arteko transferentzia baimentzen duena.

Ikusirik 1997ko Aurrekontuko kontusailetan kreditu gehikuntza egin beharra dagoela, beste kontusail batetik transferentzia eginez, eta kontuan izanik Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko Foru Legeko 46.2 artikuluaren arabera Kontseilariek, zeinek bere Departamentuaren baitan, bai-

men ditzaketela aipatu artikuluak zehazten dituen kreditu-transferentziak.

Halaberean, ikusirik Ekonomi eta Ogasun Departamentuak Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuan duen Kontuhartzaile Delegatuaren aldeko txostena.

Horiek horrela, Ekonomi eta Ogasun Kontseilariak urriaren 7an emaniko 233/1996 Foru Aginduaren bidez nere esku utzitako ahalmenak erabiliz,

EBATZI DUT:

**1.-** Hurrengo idazpen kontablea sortarazten duen kreditu transferentzia egitea 1996ko Aurrekontuan:

a) Kargua 3.800.000 pezeta.
82210-7709-7512 lerroa, 30230-0

b) Abonua 3.800.000 pezeta.
82210-2269-7512 lerroa, 30060-9

**2.-** Ebazpen hau hurrengoei jakinaraztea: Turismo Zerbitzuari, Nafarroako Parlamentuari eta Ekonomi eta Ogasun Departamentuak Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuan duen Kontuhartzaile delegatuari, bidezko ondorioetarako.

Iruñean, 1997ko martxoaren 20a

Merkataritza eta Turismo Zuzendari Nagusia: Angel Sola Jimeno”

**KONTUEN GANBARAREN TXOSTENA**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko maiatzaren 5ean harturiko Erabakiaren bidez, aurrekontuetan eginiko hainbat aldaketaren legezkotasunari buruz txostena eskatzea onartu zuen. Nafarroako Gobernuko hainbat Kontseilariren zenbait foru aginduk eta hainbat Departamentuko Zuzendari Nagusiren zenbait Ebazpenek eragin zituzten aldaketa horiek eta aurtengo apirilean igorri zizkioten Parlamentuari. Horiei buruz, Kontuen Ganbarak txosten hau eman du:

Aurrekontu-aldaketak zenbait kreditu gehikuntza, transferentzia eta sorkuntza dira, indarra duen legeriarekin bat datozenak, kasu horretarako eskumena duen erakundeak egin baititu. Bestalde, aldaketa horiek bat datoz Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/88 Foru Legeko 45. artikulutik 53.era bitartekoek ezarririkoarekin.

Iruñean, 1997ko ekainaren 4a

Lehendakaria: Fco. Javier Tuñón San Martín

## Deialdia, Nafarroako Kontuen Ganbararen zerbitzuko kontu-ikuskaritzako teknikari izateko lanpostu bat, euskaraz jakitea ezinbesteko duena, oposizio-lehiaketaren bitartez betetzekoa

**Onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda**

Lehendakaritza honen 1997ko maiatzaren 22ko Ebazpenaren bidez Nafarroako Kontuen Ganbararen zerbitzuko kontu-ikuskaritzako teknikari izateko lanpostu bat oposizio-lehiaketaren bitartez betetzeko deialdiko behin-behineko zerrenda onartu zen. Deialdi hori Nafarroako Aldizkari Ofizialean, 1997ko apirilaren 4ko 41 zk.an, argitaratu zen.

Izangaiak erreklamazioak aurkezteko 10 eguneko epea bukaturik, eta Deialdiaren 4. Oinarrian, 3. atalean, ezarritakoarekin bat,

ERABAKI DUT:

**Lehena.** Deialdiko izangai onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda onartzea. Ebazpen honen I. eranskin gisa paratuko da.

**Bigarrena.** Ebazpen hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta Kontuen Ganbarako iragarki oholean jartzeko agindua ematea, eta baita Kontuen Ganbarako Langileen Batzordeari helaraztea.

Iruñea, 1997ko ekainaren 17a

Lehendakaria: Francisco Javier Tuñón San Martín

### Onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda

Lehendakaritza honen 1997ko maiatzaren 22ko Ebazpenaren bidez Nafarroako Kontuen Ganbararen zerbitzuko kontu-ikuskaritzako teknikari izateko lanpostu bat oposizio-lehiaketaren

bitartez betetzeko deialdiko behin-behineko zerrenda onartu zen. Deialdi hori Nafarroako Aldizkari Ofizialean, 1997ko apirilaren 4ko 41 zk.an, argitaratu zen. Aipatu deialdiaren 4. Oinarrian ezarritakoarekin bat, ondoren onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda argitaratzen da.

Onartuak:

Domeño Zaro, Aitor
Echarri Osinaga, Eva
Eneterreaga Etxepare, Nora
Forcada Orbegozo, Federico
García Andueza, Aintzane
Irigoyen Maritorena, Mª Sagrario
Lejardi Saldias, Isabel
Lopetegi Olasagarre, Concepción
Montoya de Antonio, Esther
Montoya de Antonio, María
Olaechea Estanga, Mª Asunción
Oyarzabal Zubieta, Mª Dolores
Saenz de Zaitegi Perrino, Estibaliz
Urdangarin Goñi, José Luis
Urquiaga Guinea, Irene
Zabaleta Santesteban, Asunción

Baztertuak: *

Aranguren Herrera, Sergio
Ardanaz de Carlos, David
Fernández de Piérola Martínez, Mercedes
Goicoechea Fernández, Iñaki Joseba

* Deialdiaren 2. 2.1 Oinarrian, c) atalean, ezarritako betebeharrak ez egiaztatzeagatik.

NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

# HARPIDETZA ORRIA

*Izen-deiturak* ..........................................................................................................................................

*Helbidea* ..................................................................................................................................................

*Telefonoa* ........................................................... *Hiria* ...........................................................................

*P. K.* ............................................................. *Probintzia* ...........................................................................

---

Ordaintzeko:

Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko sartu-ateratzeko kontura igorri edo bertan sartu

HARPIDETZAREN PREZIOA

ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA

| | | |
|---|---|---|
| Urte bat | 5.800 | pta. |
| Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa | 130 | » . |
| Bilkura Egunkariaren aleko prezioa | 165 | » . |

IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA

**NAFARROAKO PARLAMENTUA**

«Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala»

Arrieta, 12, 3

31002 IRUÑEA

Inprimatzailea: Gráficas ONA, S. A.—Artika (Nafarroa).

Lege Gordailua: NA—363-1995

Paper Ekologiko birziklatua